

**EAEko Hezkuntza-Proiektu Alternatiboekiko
lehen gerturaketa bat.**

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Elkarrizketarako galderak: Hezkuntza alternatiboko eragileei (Bidelagun/antolatzaileei)

ELKARRIZKETARAKO GALDERAK

Hezkuntza alternatiboko eragileei (BIDELAGUN/ANTOLATZAILEEI):

1- **Zergatik** sortu zen proiektu hau? Zein helbururekin?

2- **Nork** sortu zuen?

3- Zeintzuk dira zuen proiektuaren **ezaugarri orokorrak**?

4- **Metodología** zehatz **bat edo batzuk** jarraitzen dituzue? Zeintzuk?

.....

Beste proiektu alternatiboekin komunean izan ditzakezuen alderdiak bilatze-aldera...

5- Egun, proiektu **autogestionatu** bat da hau? **Instituzioen laguntzak** jasotzen ditu?

6- Hezkuntza **komunitate** osoaren (familia, haur, profesional...) **parte-hartzea** ematen da proiektua aurrera eramateko? Zelan, esate baterako? Zertan du **eragina** parte-hartze horrek?

7- Zein **ezaugarri** partekatzen dituzte **familia** horiek? (Esaterako, maila sozio-ekonomikoari, kontzientzia politikoari, sistema konbentzionalarekiko kezkei, edota seme-alaben hezkuntzarekiko motibazioari dagokionean).

8- **Espazio** fisiko mugatu batean aritzen zarete? Edo aldakorra eta zabala da?

9- Adinkako taldekatzea egiten da, edo **adin** ezberdinetako haurrak elkartzen dira?

10- Zein da **erratioa**? (Zenbat haur daude talde bakoitzean, talde bat baino gehiago egotekotan?).

11- Zein da zure **iritzia** ikaskuntza-gune "**masifikatuen**" inguruan? (Eskola masifikatuak ikasgela bakoitzeko 20 haur inguru dituztenak bezala ulertuz, esaterako) Zeintzuk dira, zure ustez, horren **ondorioak**?

12- **Curriculumik** jarraitzen duzue? (ofiziala edo ez, agerikoa edo ezkutua...)

13- Zeintzuk dira **ebaluazio-** eta **kalifikazio-prozesuak**, egotekotan?

.....

14- Haurren **askatasun eta autonomiari** dagokionean, ezberdintasunik duzue hezkuntza sistema konbentzionalarekin alderatuz? Zeintzuk? Nola islatzen da hori praktikan? (Adibideren bat jarri) Noraino heltzen da askatasun hori zuen proiektuan, edo, zeintzuk dira mugak?

15- **Denboren** (haurren ikaskuntza- eta bizi-erritmoen, ordutegien, egutegien...) **kontrolrik** ematen da? Hau da, heldu batek zehazten eta mugatzen du hori?

16- Hurrekiko eta haien behar zein interesekiko **errespetuari** dagokionean, ezberdintasunik duzue hezkuntza sistema konbentzionalarekin alderatuz? Zertan islatzen da errespetu hori praktikan? (Adibideren bat jarri).

17- Zuen metodologiek zer nolako lotura dute haurren **ahalduntzearekin**, beste metodologia konbentzionalagoekin alderatuz?

18- **Sormenak** zer nolako papera du zuen proiektuan? Zertan du eragina sormenaren sustapen horrek, edo, zergatik da garrantzitsua?

.....

19-Ematen den hezkuntza **holistikoa** da? (Disziplinar-tekoa, integrala, pentsaera aniztasuna bilatzen duena...). Praktikan lortzen dela uste duzu?

20-Uste duzue **irakaskuntza ikasteko bide bakarra** dela? Hau da, uste duzue norbait zerbait irakasten egon behar dela hurrek ikasteko?

21- Langile **profesionalei** dagokienean... irakasleak dituzue, edo bidelagun/laguntzaileak? Edo beste figuraren bat? Zein da pertsona horien **rola** edo egin-beharra?

22- Nork egiten du **ikaskuntza-prozesuaren kudeaketa** eta erabaki-hartzea? Heldu batek (irakasle/bidelagun...) edo hurrek?

....

23- Zure ustez, zein neurritan laguntzen du zuen proiektuak **hezkuntzaren eraldaketan** eta berrikuntzan? (Haurrengan, orokorrean sistema osoarengan...). Zeren bidez laguntzen duzue bide hori eraikitzen?

24-Zuen proiektuak **gizarteari begirako helbururik** du? (adib: gizarte- eta ingurumen-justizia lortzea...)

25- Esango zenuke zuen proiektuak hezkuntza **kritiko eta demokratikoa** daramala aurrera? Zein helburuekin?

26-Zein da zuen proiektuaren **azken helburua**, edo helburu nagusia?

27-Zeintzuk dira proiektu honek -alternatiboa den einean- dituen **oztopo, zailtasun edo gabeziak**? (Adibidez, oztopo legalak, ez-egonkortasun ekonomikoa, familien perfil-aniztasun falta...)

28- Zure iritziz, hezkuntza alternatiboa **sistema publikora zabaltzea posiblea** litzateke, soilik eskola edo proiektu pribatu gutxi batzuetan egindako berrikuntza bezala geratu ez dadin? Hau da, pedagogia alternatiboak eskola publikoetan txertatu daitezke? **Nola?** Zeintzuk lirateke **muga edo oztopoak**?

2. ERANSKINA: **Elkarrizketarako galderak: Eskola/proiektu alternatibo bateko Familiei.**

ELKARRIZKETARAKO GALDERAK

Eskola/proiektu alternatibo bateko FAMILIEI:

1-**Noiztik** dago zure alaba/semea eskola honetan?

2-**Nola** izan zenuen eskola **honen berri**?

3- Zein zen zure **aurreiritzia** eskola/proiektu alternatiboaren inguruan?

4-**Zergatik erabaki** zenuen eskola/proiektu honetara eramatea zure alaba/semea?

5-Zein da zure **ikasketa-maila** eta **lan-alorra**?

6-Esango zenuke **edozein familiak** duela **aukera** proiektu alternatiboetan sartzeko haien seme-alabak?

7-Zure seme-alaba eskola honetara ekartzeak **ahalegin-ekonomiko** handia suposatzen du, publikoa ez den heinean?

8-Hezkuntzaren **zein alderdiri** ematen zaio **garrantzi handiena** eskola honetan? (Esate baterako; mugimendu librea, erritmo naturalak errespetatzea, naturarekiko erlazioa, ingurugiro eta material prestatuak edo ez-prestatuak, autonomia...)

9-Zein **onura** ikusten dituzu eskola honetan, eta orokorrean hezkuntza alternatiboan? (Alderdi positiboak zure seme/alabarengan eta gizartearengan...) Zer da zuk **gehien baloratzen** duzuna?

10-Zein **muga** edo **zailtasun** ikusten dituzu eskola honetan, edo orokorrean hezkuntza alternatiboan? (Alderdi negatiboak, zure kezkak, edo oraindik joratu ez diren arloak; adibidez: oztopo legalak, proiektuaren ez-egonkortasun ekonomikoa, familien perfil-aniztasun falta, haurrak hurrengo hezkuntza-etapetara moldatzeko zailtasun akademikoak...)

11-**Nola hobetuko zenuke** hori?

12-Zein uste duzu izango dela **hezkuntza alternatiboaren bidea** datozen urteetan? Etorkizun oparoa duela uste duzu? **Sistematik at, edo sistemaren barruan?**

13-Zure iritziz, **nola zabaldu** liteke hezkuntza alternatiboa **sistema publikora**, soilik eskola edo proiektu pribatu gutxi batzuetan egindako berrikuntza bezala geratu ez dadin?

14-Lehenago azaldu duzu zergatik erabaki zenuen zure seme/alaba proiektu honetan sartzea eta ikusten dituzun onurak. Uste duzu **alderdi horiek** hezkuntza **publiko**-konbentzionalean ematea **ezinezkoa** dela? Zein **muga edo oztopo** ikusten dituzu pedagogia alternatiboak eskola publikoetan aplikatzeko? **Zein neurritan txertatu ahalko** lirateke gaur egun? **Zein** uste duzu dela hezkuntza alternatiboa guztiontzat eskuragarria izaten **hasteko bidea**?

3. ERANSKINA: Elkarrizketa: 1. Bidelaguna.

ELKARRZIKETA

1. Bidelaguna

1- **Zergatik** sortu zen proiektu hau? Zein helbururekin?

Proiektu hau 3 pertsonak sortu genuen 2002. urtean gu hirurok elkartzearen arira. Hirurok hezkuntza mundutik gatoz, bai gure formakuntzagatik bai lanagatik (eskoletan arituak ginen...). Ikusten ari ginen beste era batean egin zitekeela uste genuen, eta intuiziño horrek bultzatu gintuen hezkuntza-proiektu bat eratzerara. Hasieran gure elkartzearen motibazioa ez zen eskola edo espazio ezberdin bat sortzearena: gure lehenengo motibazioa bizi genuen hezkuntza-sistemaren hutsunean salatzea (modu ludikoan, kalera irtenda...), eta kultur-eraldaketarako balioko zuten jarduera ezberdinak antolatzea; hezkuntza sistema beste eredu baten hausnarketarako gonbidatuz. 2002an hausnarketarako geldialdi bat egin genuen, eta hurrengo ikasturtean lanean jarraitzeko gogoz geundela adostu genuen hiruron artean; eta kritika hutsak alternatiba barik pisu gutxi zeukalaren ondoriora iritsi ginen. Eta gutako bat eskola alternatibo baten proposamenarekin iritsi zen. Ez genekien zer zen hori; gure inguruan ez zegoen horrelako ekimenik. Baina baina bagenekien Almerian bazegoela halako bat, urteak zeramatzala jardueran; eta bide hori arakatzen hasi ginen. Beraz, sortzaileak gu hirurok izan ginen; baina bidean beste lagun batzuk gerturatu dira lan-taldera; gaur egun talde egonkorrean 5 pertsona gaudelarik (proiektu honek beste parte-hartze asko dituen arren). Hori izan zen gure sorrera; baina proiektu hau martxan jarri arte bost urte eman genituen hausnarketan, talde ahaldundu bat eraikitzen, lengoia komun bat eraikitzen, proposatu nahi genuen hezkuntza-proiektua lantzen... Horretarako taldean esperientzia ezberdinak biditatu genituen, ikasitako guztia des-ikasi, eta modu autodidaktan ber-ikasi genuen. Oso urte abertasak eta oparotsuak izan ziren.

Helburu asko genituen, une bakoitzean asmo bat. Gaur egungo helburu nagusiak: Umeei eta nerabeei zoriontsu izateko aukerak handitzea; eta belaunaldi ezberdinen arteko harreman ko-protagonikoa sakontzea eta gauzatzea.

2- **Nork** sortu zuen?

Erantzunda

3- Zeintzuk dira zuen proiektuaren **ezaugarri orokorrak**?

Pedagogia kritikoa eta guztien onerako pedagogiak ditu ardatz. Horren helburu nagusiak zoriontsu izateko aukerak handitzea eta belaunaldi ezberdinen arteko harreman kopotragonikoetan sakontzea eta gauzatzea.

4- Metodología zehatz bat edo batzuk jarraitzen dituzue? Zeintzuk?

Ez dugu metodologia zehatzik jarraitzen. Gure ustez, metodoa mugatzailea da ikaskuntza- eta irakaskuntza- prozesuan. Prozesu hau bizia da, eta norberak erabakitzen du nola, noiz, zer, zenbat denbora, eta norekin ikasi nahi duen. Horrek ez du esan nahi, gure egunerokotasunean egunak egitura zehatzik ez duenik: egunak egitura bat du, eta egitura horretan giroan parte-hartzen dugun helduok programazio didaktiko ezberdinak eskeintzen ditugu; eta ume eta nerabeek erabakitzen dute parte-hartu edo ez.

.....

Beste proiektu alternatiboekin komunean izan ditzakezuen alderdiak bilatze-aldera...

5- Egun, proiektu **autogestionatu** bat da hau? **Instituzioen laguntzak** jasotzen ditu?

Hau 20 urte dituen proiektu autogestionatua da. Eta, horrek, ibilbide luze honetan zehar autonomia eta askatasuna eman digu gure lana burutzeko. Beraz, instituzio eta administrazioetatik ez dugu diru-laguntzarik jasotzen. Gurasoen kuotetatik finantziatzen da proiektua da. Bestalde, orain dela 20 urte proiektua laguntzeko kanpaina bat abian jarri genuen, eta badira ekonomikoki laguntzen gaituzten lagunak ere.

6- Hezkuntza **komunitate** osoaren (familia, haur, profesional...) **parte-hartzea** ematen da proiektua aurrera eramateko? Zelan, esate baterako? Zertan du **eragina** parte-hartze horrek?

Komunitate osoaren parte-hartzea oso beharrezkoa da. Elkarlanik ez balego ez ginateke iritsi garen puntura iritsiko. Gure komunitatea batzen duena, besteak beste, gure semeekiko ongizatea bilatzea da. Eta hori bermatzeko behar dena egiten ahalegintzen gara. Gero familia bakoitzak nahi duen konpromesu maila hartzen du, eta ez dugu epaitzen; bakoitzaren behar eta egoerak kontuan hartuz elkarlanerako konpromesu bat hartzen da. Egia da gaur egun proiektu hau dena, ume eta nerabeek goizero (haien erabaki, proposamen, elkarbizitzeko baldintzen bidez) eta urte hauetan zehar sortu eta eraiki duten testuinguruarengatik dela proiektu hau. Beraz komunitate handi hau elkarlanean aritzen da proiektua bizirik mantendu ahal izateko. Bestela ezinezkoa litzateke.

7- Zein **ezaugarri** partekatzen dituzte **familia** horiek? (Esaterako, maila sozio-ekonomikoari, kontzientzia politikoari, sistema konbentzionalarekiko kezkei, edota seme-alaben hezkuntzarekiko motibazioari dagokionean).

Orokorrean zerbait partekatzen badugu gure seme-alaben ongizatea nahi dugula da. Eta, hortik hareatago, denok hezkuntza-sistema bizi izan dugu gure baitan eta beste modu batean egin daitezkeela guzak uste dugu. Eta horrek batu egin gaitu.

8- **Espazio** fisiko mugatu batean aritzen zarete? Edo aldakorra eta zabala da?

Beti ibili gara bilatzen espazio bat gure jarduera garatu ahal izateko. Proiektu honek hasierak Berangon izan zituen; bertako lokal bat erdi okupatuta erdi utzi zigutela. Han lehen 7 urteak eman genituen. Espazio hori hiriko giroan zenez, txikia geratzen ari zitzaigunez, eta proiektua naturan txertatu nahi genuenez... bi urtez bila ibili ostean Muxikako Maume auzoan leku zoragarria topatu genuen, eta bertan jada 8 ikasturte daramatzagu. Maumek eskaintzen diguna zera da: naturarekin konexio itzela, nekazal-gunea, lasaitasuna, eta handitzen joateko aukera ezin hobeak.

9- Adinkako taldekatzea egiten da, edo **adin** ezberdinetako haurrak elkartzen dira?

Adin ezberdinetako haurrak elkartzen dira. Baina espazio ezberdinak daude: 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzako espazioa den Oktogonoa; 7 eta 12 urte bitarteko umeak dauden Primaria espazioa; eta Gaztetxea.

10-Zein da **erratioa**? (Zenbat haur daude talde bakoitzean, talde bat baino gehiago egotekotan?).

Guretzat erratioa ez da kontutan hartzen dugun kontzeptu bat; oso proiektu txikia eta familiarra izan garelako beti. Eta gure asmoa beti izan delako proiektu honetan parte-hartzen zuten ume eta nerabeen bizitzan behar zutena zer zen jakin behar genuela, eta behin hori gertatzen ez bazen (taldea gehiegi handitu delako eta ez ginelako guztion bizitzaz jabetzeko gai), ez zen nahi genuen proiektua izango. Gaur egun erratioak ez ditugu kontuan hartzen; helduak ere ez duelako taldea kontrolatu behar, baizik eta belaunaldi ezberdinen arteko elkarbizitza ematen den espazio kontextu bat da, denon artean zaindu egiten gara, helduak ez du bereziki gehiago zaintzen giroa edo arduera gehiago hartzen (baizik eta komunitate osoak). Beraz, alde horretatik elkarbizitza erlaxatua eta emankorra da.

11- Zein da zure **iritzia** ikaskuntza-gune “**masifikatuen**” inguruan? (Eskola masifikatuak ikasgela bakoitzeko 20 haur inguru dituztenak bezala ulertuz, esaterako) Zeintzuk dira, zure ustez, horren **ondorioak**?

Schumacher-ek esaten zuen bezala “lo pequeño es hermoso”. Gu horretan oinarritu gara; eta behar uste dugu taldea ezin dela izan ez oso handia ez oso txikia, oreka bat bilatu behar dela. Azkenean, oso txikiak bagara, ematen diren aukerak oso murriztuak dira. Beraz, hausnartzen ahalegintzen gara talde oreka egokia zein den.

12- **Curriculumik** jarraitzen duzue? (ofiziala edo ez, agerikoa edo ezkutua...)

Ez dugu curriculum ofizialik jarraitzen. Norberak, taldean, curriculum diseinatu eta garatzen du. Anitzak dira beraz: pertsona adina curriculum dago. Norberak zer, nola, zenbat denboran, norekin... ikasi nahi duen erabakitzen du oso modu naturalean. Eta horretan oinarritzen da ikaslearen ikaskuntza prozesua. Horrek ez du esan nahi helduok proposamen didaktiko ezberdinak eskiantzen ez ditugunik. Baina ez dago curriculum orokor bat.

.....

14- Haurren **askatasun eta autonomiari** dagokionean, ezberdintasunik duzue hezkuntza sistema konbentzionalarekin alderatuz? Zeintzuk? Nola islatzen da hori praktikan? (Adibideren bat jarri) Noraino heltzen da askatasun hori zuen proiektuan, edo, zeintzuk dira mugak?

Gu umeak izan gara, eskolatik pasa izan gara, eta helduaroan eskoletan irakasle izan gara. Bi espazioak aski ezagutzen ditugu. Proiektu honetan haurrek haien autonomiarekin eta haien askatasunarekin duten harremana oso naturala da. Goizetan giroetan sartzen direnetik haien interes eta beharrek kontaktuan jartzen dira, eta horren arabera esan ditugun galderei (zer ikasi...) erantzuna ematen hasten dira. Eta erantzun horiek jarduera batera edo bestera eramaten dituzte; taldekakoak edo banakakoak... Testuinguruak erreztan dien erabakitzeko aukerak erabakitzeko gaitasuna garatzea ahalbidetzen du, eta hori da autonomiaren eraikuntzaren oinarri. Egunak egitura bat du, proposamen ezberdinak ditu; baina norberak erabakitzen du zer den nahiago duena. Beste alde asko daude hezkuntza konbentzionalarekiko: nahi dutenean joan daitezke komunera, kanpora behar duten jarduera egiteko, eta abar. Giro horretan ematen den askatasunak arduerarekiko lotura zuzena ere badu: guretzako askatasuna eskaintzen duen giro batek arduera eskatzen du; alderdi horietako bat garatzen abda, bestea nahitaez garatzen da. Oso binomio garrantzitsua da hori.

15- **Denboren** (haurren ikaskuntza- eta bizi-erritmoen, ordutegien, egutegien...) **kontrolrik** ematen da? Hau da, heldu batek zehazten eta mugatzen du hori?

Guk eskola konbentzionalaren oso antzekoa den egutegi bat proposatzen dugu: jai formalak, oporrak... Ordutegia 9:30etatik 14:30etarakoa da. Eta tarte horretan, bost ordu horietan gertatzen dena umeak aukeratzen du. Egia da eguneak ere bere egitura duela: 9:30etan haurrak eskolara sartzean jarduera askean ibiltzen dira; 11etan hamaiketako eskaintzen dugu; 12etan espazio guztietan (bai 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzako espazioa den Oktogonoan, bai 7 eta 12 urte bitarteko umeak dauden Primarian, eta Gaztetxean) tailer edo lan proposamen ezberdinak eskaintzen dira egunero; 12:45tan asmatutako ipuina eskaini egiten da bai oktogonoan bai primarian; 13:00etan bazkalordura deitzen da; 14:00etan Komisioak deitu egiten dira (Primariako haurrek jantokia batzen eta garbitzeko derrigorrezko konpromesua dute); eta 14:30etan eskola batu eta etxera goaz. Beraz, egunak badu egitura bat; guretzat hori oso garrantzitsua da. Batez ere adin txikienetan, oraindik denbora-noizoak garatzen ari direlako eta bost ordu horietan hauren burua kokatzeko zailtasuna izan dezaketelako; egunero errepikatzen den egitura horrek kokatzen laguntzen die bost ordu horietan zehar. Umeak handitzen doazen heinean egitura hori eskeini egiten da baina ez da hain beharrezkoa bost ordu horietan kokatzeko. Beraz, alde horretatik, denbora bat markatzen da. Baina eskola konbentzionalarekin alderatuz, ez dugu denbora ikasgaietan banatzen, adibidez.

16- Haurrekiko eta haien behar zein interesekiko **errespetuari** dagokionean, ezberdintasunik duzue hezkuntza sistema konbentzionalarekin alderatuz? Zertan islatzen da errespetu hori praktikan? (Adibideren bat jarri).

Erantzunda.

17- Zuen metodologiek zer nolako lotura dute haurren **ahalduntzearekin**, beste metodologia konbentzionalagoekin alderatuz?

Umeak maitasun, errespetu, eta onarpen testuinguru bat badu bere garapen-prozesuan, ahalduntzea berez ematen den gauza bat da. Ez da inondik inora potentziatu edo elikatu behar metodologia berezietan. Gizaki orok berez dugun indar bat da.

18- **Sormenak** zer nolako papera du zuen proiektuan? Zertan du eragina sormenaren sustapen horrek, edo, zergatik da garrantzitsua?

Sormenari dagokionez, uste dugu ikaskuntza-prozesuak errazten dituen edozein testu-ingurutan agertu diatekeen ezaugarri bat dela. Gizaki egiten gaituen ezaugarri bat ere bada sormena. Beraz, uste dugu ez dela metodologiarik erabili behar sormena gudan garatzeko; baizik eta kontextu atsegin, errespetuzko eta onarpenezko bat eskaintzean agertzen den ikaskuntza ezaugarri bat da.

.....

19-Ematen den hezkuntza **holistikoa** da? (Disziplinartekoa, integrala, pentsaera aniztasuna bilatzen duena...). Praktikan lortzen dela uste duzu?

Bai. Guk diziplina-aniztasuna ikastea gertatzen den ezaugarri bat bezala ere ulertzen dugu. Ez dugu bultzatzen; baizik eta testuinguru bat erretzen dugu disziplina-aniztasuna ager daiten. Adibide bat izan daiteke, lau urtetan zehar martxan egon den epe-luzerako proiektu bat: taldean erabaki zen putzu edo estanque bat egitea. Putzu hori egiteko lan-ildo ezberdiak agertu ziren. Hasteko, non ipini: hor ikerketa lan bat egin genuen putzu bat eraikitze txoko bat eraikitze toki hoberena zein zen jakiteko (etxetik urrun ez egotea); eta ikerketan norabidea ere garrantzitsua zela ikusi genuen (eguzkiaren argia jaso zedin); baita aldapa behar zuela, sakontasuna kalkulatu (matematika...), putzuaren mantenimenduan zer kontuan hartu (ur-bomba baten mekanika aztertu genuen); putzua egiteko materialak; ura oxigenatzeko landare egokienak zeintzuk ziren (floraren ikerlan aberasgarria)... Auzolanak antolatu genituen (gaztetxeetarako...). Gurasoen elkar-lana ere izan genuen proiektuan. Proiektu hau fauna, biologia, kalkulua, matematika, latinerazko hitzak, geografia, eta bestelako disziplinak lantzeko ikaskuntza-prozesu bat izan zen. Proiektu honen oinarria horrelako prozesuak dira.

20-Uste duzue **irakaskuntza ikasteko bide bakarra** dela? Hau da, uste duzue norbait zerbait irakasten egon behar dela hurrek ikasteko?

Guretzako irakaskuntza eta ikaskuntzaren arteko oreka bat bilatu behar da. Hori litzateke egokiena hezkuntza-proiektu baten ikuspegian.

21- Langile **profesionalei** dagokienean... irakasleak dituzue, edo bidelagun/laguntzaileak? Edo beste figuraren bat? Zein da pertsona horien **rola** edo egin-beharra?

Goizetan hamar bat helduk parte-hartzen dugu goizetan. Bakoitzak bere funtzioak ditu: batzuk oktogonoan gaude, beste batzuk primarian, beste batzuk gaztetxean, eta beste batzuk tailer bereziak edo lan-ildo berezietan parte-hartzen dute. Helduok serio hartzen ditugu haurtzaroarekiko ko-protagonismo harremanak, non bizikidetza eta elkarrekiko lankidetza bilatzen diren ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak azalaratzen diren. Guretzako begirada ko-protagonikoa belaunaldien arteko elkarbizitzan oinarritzen da.

22- Nork egiten du **ikaskuntza-prozesuaren kudeaketa** eta erabaki-hartzea? Heldu batek (irakasle/bidelagun...) edo haurrek?

Esan bezala, ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak batzuetan haur eta gazteek bideratzen dituzte, eta beste batzuetan helduok gara ikasmen batzuk eskaintzen ditugunak. Beraz, bion arteko erabakitze-prozesu batetan oinarritzen da.

....

23- Zure ustez, zein neurritan laguntzen du zuen proiektuak **hezkuntzaren eraldaketan** eta berrikuntzan? (Haurrengan, orokorrean sistema osoarengan...). Zeren bidez laguntzen duzue bide hori eraikitzen?

Proiektu honek ardatz bezala pedagogia kritikoa eta guztien onerako pedagogiak ditu. Eta, horrez gain, kanpora begira jarduenaldiak egiten ditugu, unibertsitatean parte-hartu izan dugu, hezkuntza teknikoko profesionalak izango diren ikasleekin ere elkarlanean ibili gara, eta zure kasuan (EHUko ikaslea) bezala beste ikasle asko ere guregana gerturatu dira hezkuntza alternatibean inguruen inguruan hausnartzeko laguntza eskatzen. Guk argi dugu gure egitekoa politikoa dela, eraldaketa duela oinarrian eta guk egiten duguna ez dela soilik gure auzoan gure komunitatean geratzen, baizik eta haratago doala. Eta datozen hurrengo 20 urteetan hori izango da gure egiteko nagusia, proiektu honen jarduera garatzen den heinean.

24-Zuen proiektuak **gizarteari begirako helbururik** du? (adib: gizarte- eta ingurumen-justizia lortzea...)

Gure asmoa oraindik ez dutenei ahotsa ematea da. Ume eta nerabeak ez-ikusiak izan dira beti, eta egoera hori eraldatzeko behar handia dagoela uste dugu. Inor atzean ez uzteko helburua ere du proiektu honek. Eta noski belaunaldien arteko bizikidetza eredu berri baten proposamena dakar. Eredu hori ko-protagonismo begiradatik eraikitzen da. Guretzako gure jarduera egunerokotasuneko hezkuntza-jarduera bat da, baina funts politikoa du, helburu eraldatzaileak dituen heinean. Eta kultura eraldaketa ume eta nerabeekin egiten ez bada, ez da eraldaketarik egongo.

25- Esango zenuke zuen proiektuak hezkuntza **kritiko eta demokratikoa** daramala aurrera? Zein helburuekin?

Esan, bezala pedagogia kritikoa eta guztien onerako pedagogiak ditu ardatz. Horren helburu nagusiak zoriotsu izateko aukerak handitzea eta belaunaldi ezberdinen arteko harreman kopotragonikoetan sakontzea eta gauzatzea.

26-Zein da zuen proiektuaren **azken helburua**, edo helburu nagusia?

Erantzunda.

27-Zeintzuk dira proiektu honek -alternatiboa den einean- dituen **oztopo, zailtasun edo gabeziak**?
(Adibidez, oztopo legalak, ez-egonkortasun ekonomikoa, familien perfil-aniztasun falta...)

Edozein proiektu autogestionatu batek dituen zailtasunak ditugu, ez oso ezberdinak.

28- Zure iritziz, hezkuntza alternatiboa **sistema publikora zabaltzea posiblea** litzateke, soilik eskola edo proiektu pribatu gutxi batzuetan egindako berrikuntza bezala geratu ez dadin? Hau da, pedagogia alternatiboak eskola publikoetan txertatu daitezke? **Nola?** Zeintzuk lirateke **muga edo oztopoak**?

Galdera oso interesgarri eta sakona da, eta oraindik ez dugu erantzunik ez duena guretzat. Baina justu une hauetan galdera horri erantzuteko lan-talde bat sortu nahi dugu. Egun oso bat antolatu dugu gai honen inguruan elkarrekin hausnartzeko. Galdera horren erantzuna epe luzerako den gauza bat izango da, baina hausnartzen hasi nahi dugu.

(jardunaldiak maiatzeren 28an izango dira eta gonbidatuta zaude)

29- Kontatzeko besterik bazenu...

4. ERANSKINA: Elkarrizketa: 2. Bidelaguna

ELKARRIZKETA

2. Bidelaguna

1- **Zergatik sortu** zen proiektu hau? Zein helbururekin?

Duela 6 ikasturte zabaldu zen. Nik 3 ikasturte daramatzat, baina eskola zabaldu baino lehen ere bizi izan nuen prozesua.

Formakuntza bat egiten ari ginen pertsona batzuk (Hizkuntza autodidakta), eta talde horretatik suertatu zen behar bat, bai familia bai irakasle batzuentzat. Orduan talde horretatik beste ehkuntza proiektu bat lagunduko zuen lan-talde bat sortu zen. Ekimen horrek hezkuntza-proiektu bat zuen, baina ez eskola bat. Beraz eskola sortzeko lanean hasi ginen, pare bat urez. Justu gure proiektuak egun duen eraikina (ordurarte itxita egondakoa) erabiltzea eskatu eta lehiaketa publiko baten bidez espazio hori erabiltzea irabazi genuen. Momentu kritikoa izan zen prozesu hori, lehenengo proiektua eremu honetatik urrun zegoelako. Orduan erabaki genuen bideak banatzea; eta hau beste eskola bat izango zen. Aurrera jarraitu genuen, taldekide berriak agertu ziren, eskolaren egokitzapen lana egin zen eta familiak lortu ziren. Beraz, familien beharragatik eta irakasleen beharragatik (haien baloreekin bat egiten zuen modu koherente batean lan egiteko) sortu zen.

2- **Nork** sortu zuen?

5 pertsonako irakasle-kooperatiba batek zabaldu zuen, gero beste batzuk batu ziren. Praktikan gaur egun 8 gara.

3- Zeintzuk dira zuen proiektuaren **ezaugarri orokorrak**?

Guk haurra izaki ahaldun bat bezala hartzen dugu. Bizitzeko eta ikasteko behar duena badauka. Hau erdian ipinita, haurra bere hezkuntzan agente aktibo bat da. Eta eskola batean gaudenez, guk egin ahal duguna da lagundu. Laguntza horretan guk espazioak proposatzen ditugu, haiek espazioekin interaktuatzeko (eta bertan haien artean eta gurekin); eta interakzio horretan ikasten joateko. Guretzako ikastea guk dugun ahalmen bat da; egin behar dugun bakarra espazio horiek aberastu, ikasiko dutena aberatsa izateko. Beraz argi dago etegabe ikasiko dutela, nagusiok etengabe ikasten dugun lez; informazioa ingurutik hartzen eta kokatzen. Eta kokapen horretan ikaskizunak suertatzen dira. Berez espazioan guk egindako proposamenekin jada ikasten ari dira. Oraindik badaude gauza batzuk guk ez dakiguna nola egin naturalki lantzeko, eta beraz guk proposatzen ditugu. Eta horrela goaz eskatzen diguten curriculum osatzen: alde batetik haiek espontaneoki ikasten dutenarekin, eta bestalde guk

proposatzen dugunarekin (bai lan pertsonala duten egunaren tarte batean, eta bai tailerretan). Guk proposatzen ditugun tailerretan apuntatzeko aukera dute; baina urteak pasa ahala badago behar bat edo derrigortasun bat. Hau da, naturalki doaz ohitura batzuk hartzen, nagusiek tailerrak egiten dituztela ikusten, nahi badute apuntatzen dira probatzera; eta gero adin batean zerbaitetan apuntatzera behartuta dauden. Normalean ez da arazorik egoten; baina agian kasuren batean gogorazten behar diegu aukeratu behar dutela.

4- Metodología zehatz bat edo batzuk jarraitzen dituzue? Zeintzuk?

Gure metodologia edo estilo propioa jarraitzen dugu; gure esperientzia pertsonaletan oinarrituta.

Hemen gure arteko harremanak oso naturalak dira (familia handi bat bagina bezala), eta hori oso ona da hurrekin konfiantza handia dugulako, baina bestetik batzuetan gehiegi erlaxatu gaitezke gauza formal bat (tailerrak adibidez) egiterakoan. Beraz kasu batzuetan distantziak mantendu behar dira.

Persona ezberdinak gaude, formazio ezberdinetakoak, iritzi ezberdinetakoekin. esaterako, Montessori pedagogia ezagutzen dugu, Montessori gidarik ez dugun arren, baina ikastaroak egin ditugu eta informazioa bilatu dugu aplikatzen saiatzeko. Hori bai, gure proposamen pedagogiko guztietan LH esperientziarekin konexio handia duen etapa bat da; material manipulatioen bidez irakasten diegu, eta erabilerarekin joaten dira jabetzen erabilerak berak ematen dizkien ikaskizunez. Demagun jolas bat egiten dugula arauak ikasteko, Montessori materialak erabiliz, edo material concreto. Eta hala jolasak zelan funtzionatzen duen ikasten dute; eta hori da garrantzitsuena. Hori guk esan diegulako edo haiek bizitzen dutelako ikas dezakete. Guk haiek bizitzearen bidez ulertzea bultzatzen dugu batez ere; haiek lortu dutelako haien kabuz hara heltzea, eta hori delako benetan finkatzen dena eta gero eskuragarri izango dutena beste espazio batera eramateko. Bestela, buruz ikasten dutena testuinguru horretan ikasten dute, baina testuingurua aldatzean aplikatzea zaila da. Eta askotan ahaztu egiten da ez bada behin eta berriz partekatzen.

Orain burura datorkizkidan izenak hauek dira: Montessori, Waldorf, Freinet, Adimen Anitzeko teoriak, Tonucci, Reggio Emilia,... Baina gu ez gara Montessori eskola bat edo Waldorf eskola. Gustatu izan zaizkigun gauzak -koherentzia bazuten eta egiten bagenekizkien- sartzen joan gara. Naturalki anitzak garelako.

Guretzat, halaber, oso garrantzitsua da haiek naturalki ezartzen duten izaerarekiko konexioa ez galtzea da; haiekin konekatatuta egotea. Beraz, Hezkuntza Sortzailean ere murgildu gara, eta pintura, buztin edo mugimendu tailerrak zelan proposatu ikasi dugu; betiere norberaren adierazmena eta izaera errespetatuz eta epaiketarik gabeko espazioak sortuz, horrela haien buruarekiko harreman hori sendotu ahal izateko eta hala -arlo kognitiboari ez ezik- beste arlo batzuei ere erreparatzeko era integralean (izaeraren aspektu fisikoak, emozionalak, adinmenekoa...)

.....

Beste proiektu alternatiboekin komunean izan ditzakezuen alderdiak bilatze-aldera...

5- Egun, proiektu **autogestionatu** bat da hau? **Instituzioen laguntzak** jasotzen ditu?

Guk modu pribatu batean egiten dugu dena. Familiek ordaindutako kuotei esker gaude zabalik. Baina hezkuntza sistemaren sarean gaude sartuta, omologatuta gauden heinean.

Guk urtero eskatzen dugu kontzertatuak izatea; baina urtero ez dute onartzen. Eusko Jaurlaritzarentzat gu bezalako eskola bat bere sistema kontzertatua izatearen alde ona hurbilagotik kudeatzea (kontrolatzea) litzateke. Baina alde txarra ordaindu behar izana da. Gu eskola txikia izanda, ekonomikoki ez litzateke inbertsio handia izango; beraz ez dakigu zergatik ez gaituzten onartzen.

Katalunian eskola pribatu askoz gehiago daude, kultura ezberdina dagoelako; praktika gehiago dutelako arlo pribatuak eta publikoak kolaboratzera bultzatzeko eta gizartearen beharrak asetzeko. Gure euskal gizartean arlo publikoak presentzia handiagoa du.

3 eta 12 urte bitarteko eskola da.

6- Hezkuntza **komunitate** osoaren (familia, haur, profesional...) **parte-hartzea** ematen da proiektua aurrera eramateko? Zelan, esate baterako? Zertan du **eragina** parte-hartze horrek?

Argi dago oso eraginkorra dela. Alde batetik, familiak eskolara etortzeari esker gaude zabalik. Eta, bestetik, eskola hau nolabaiteko proposamen ezberdina izanik, hona datozen familiek hau espreski bilatu egin dute eta ahalegin handia egiten dut, mugitzen dira... Modu aktibo batean parte-hartzen dute familiek. Kudeatzeko erari dagokionean, lan-talde pedagogiko moduan hiru gune aipatuko genituzke: Kooperatiba, familiak, eta hurrak. gauza batzuek zerikusi zuzena dute arlo pedagogikoarekin; eta arlo horretan irakasleen kooperatiba da arduradun nagusia. Beste arlo batzuetan beharbada familiek dute, haien beharrak asetzeko alderdietan: autobusa familiek antolatzen dute (gure laguntzarekin), bazkal-ordua ere bai (une pedagogikoa ere bihurtzen delarik, familiekin batera kudeatzen dugu; jantokiko arauak eta janariak aukeratu eta ezarri...). Guztiok parte hartzen dugu alderdi guzti horietan. Beste adibide bat: eskolan talde handi bat behar denean zerbait egiteko (konponketak, kolunpio berriak jarri, espazio berriak sortu...) auzolanak antolatzen ditugu familiekin batera jarduteko jai-giro batean.

7- Zein **ezaugarri** partekatzen dituzte **familia** horiek? (Esaterako, maila sozio-ekonomikoari, kontzientzia politikoari, sistema konbentzionalarekiko kezkei, edota seme-alaben hezkuntzarekiko motibazioari dagokionean).

Ezaugarri komunak dituzte (haurrekiko bilatzen den harremana era ezberdin edo atipiko batean bizitzeak batzen gaitu), baina heterogeneoak gara (hurbileko zein urruneko familiak; familia batzuk kuoei ekonomikoki lasai asko aurrei egiten diete eta beste batzuek ahalegin handiarekin -baina egiten dute-). familien arteko elkar-lana dago, taldetxoak egon arren. esango nuke heterogeneotasun bat dago homogeneotasun baten barruan. Eta homogeneotasuna da denek bilatzen dutela espazio bat hurrak errespetatzeko eta haien erritmora hazteko, egoera modu ez-atsegin batean bizitzeko. Egia da batzuetan

familiaren bat ez dela ondo sentitu (eta hitz egiten dugu...), eta kasu baten batean adostasunera ez heltzea ikusi dutelako hau ez dela bilatzen zuten proiektua eta beste toki batera joatea.

8- **Espazio** fisiko mugatu batean aritzen zarete? Edo aldakorra eta zabala da?

Espazio fisiko finko bat dugu (etxea), eta etxearen inguruan merendero handi bat dago, hesi batez mugatuta. Guk praktikan eskolako eremu hori erabiltzen dugu; baina batzuetan, behar dugunean -eta hurbil eta erraz dugulako- ingurura hurbiltzen gara. Momentuaren arabera eta eskolako ordutegiaren barne proposatzen dizkiegu “Poposamenak” deitzen direnak, non haiek erabakitzen duten nora joan eta zer egin: batzuetan ibaira joan bainatzera, txango bat inguruko baserrietara. Hau batez ere txikiekin egiten dugu, nagusiagoei ez zaielako hainbeste interesatzen. Hau guztia oinez egiten da, ostiraletan, irakasleak libre gaudenean. Hori astero egiten da. Baina, hilabete amaieran ere txango bat egiten dugu ingurura; inguruko mendietara, zirkura, eta abar.

Laburbilduz, leku finkoa izan arren, inguruko espazioetara ere zabaltzen gara noizean behin. Ikusten dugulako haiek behar dutenerako ez garela urrunago joan behar, eta ez dugu gehiagotan joateko beharra sentitu.

9- Adinkako taldekatzea egiten da, edo **adin** ezberdinetako haurrak elkartzen dira?

Bi espazio berezi ditugu: Habia (txikienak, “HH”), eta Ganbara (nagusienak, “LH”). Eta haurrak naturalki sailkatzen dira batean edo bestean, haien beharren eta espazioen zein proposamenen arabera. Habian proposatzen dena, harreman motak, arauak eta abar txikientzako prestatuta daude. Ganbaran beste moduko harremanak, proposamenak, eta pertsonak daude (handiagoak, arinago mugitzen direnak...) Haur txikiak naturalki Habira doaz. Baina hazten doazen ahala, ikusten dute nahiko bizi izan dutela hor, eta haur nagusiagoak Habira pasatzen joan direla. Orduan galdezka hasten dira eta Ganbarara joatera gonbidatzen diegu, bisitatzen. Apurka-apurka doaz, eta trantsizio hori naturalki egiten dute (7 urte inguru dituztenean normalean), eta ordutik aurrera Ganbarakoak bihurtzen dira, eta bertako errutinetan sartzen dira (asanbladan arauak aukeratzea...). prozesu bat da: haiseran ikusten dute besteek nola egiten duten eta gero parte hartzen hasi.

Lehen Hezkuntza barruan printzipioz guztiak daude elkarrekin momentu batzuetan izan ezik: lan pertsonala egitean (guk adinera -edo bi urte bitarteko orkilla- egokitutako proposamen bat zuzentzen dugu). Eta tailerretan nahastuta daude; adierazpenezkoak direlako, eta adierazteko anitzak badira haurrak hobeto; konparaketa zailagoa da (ez dira 7 eta 12 urteko haurrak konparatuko).

10-Zein da **erratioa**? (Zenbat haur daude talde bakoitzean, talde bat baino gehiago egotekotan?).

55 ikasle daude momentu honetan eskola osoan. 5 nagusi. 11-ko erratioa.

11- Zein da zure **iritzia** ikaskuntza-gune “**masifikatu**en” inguruan? (Eskola masifikatuak ikasgela bakoitzeko 20 haur inguru dituztenak bezala ulertuz, esaterako) Zeintzuk dira, zure ustez, horren **ondorioak**?

Nire aitak ikasi zuenean 50 ikasle inguru zeuden klasean; nik ikasi nuenean 35 inguru ginen klasean; gaur egun erratio ofiziala 25 haur dira. Progresioa ikus daiteke. Guk eskolan 11 ditugu heldu bakoitzeko. Eta hala ere esan dezaket ni ez naizela heltzen kasu guztietara; sentitzen dugu gure arreta 4 haurren artean partekatzen dugula. Baina ezin dugu baldintzengatik. Era horretan bebai, haurrek autonomia gehiago dute; agian ez dute gurekin denbora osoan egin behar (momentutxu batean bakarrik eta gero autonomoak izan). Baina egia da haur gutxi egonda arreta hobeto ematen dugula. Horren alde txarra izan daiteke gutxiegi egonda haurren arteko harreman aukera nahiko ez egotea. Badago puntu bat non haur nahiko dauden harreman nahiko izateko, eta aldi berean arretarako gehiegi ez egoteko.

Ikusten dut baldintza ekonomikoa handia dela. Inbertsio handiagoa egongo balitz, taldeak txikiagoak izango ziren, eta arreta hurbilagoa. Edo beste batzuetan kontrakoa egin dute: taldeak txikitu beharrean, nagusien kopurua handitu (2 nagusi 25 hurreko). Uste dut 6 pertsona talde batean egotea gutxiegi dela harremanen aniztasunerako.

Ulertzen dut baldintza hauek nondik datozen. Guk geuk baldintza ekonomikoa sentitzen dugu: lehentasun handia ematen diogu kalitate horri, eta inbertsioa egiten dugu erratio txikia izatean. Ze gure erratio handiagoa izan zitekeen eta kuotak familientzako baxuagoak; baina orduan eskema berdina erreproduzitzen egongo ginen. Eta guretzat erratioak baxuak izan behar dira.

Laburbilduz, erratioak baldintzatzen du hezkuntza zelakoa izango den. Eta arlo ekonomikoak erratio baldintzatzen du.

12- **Curriculumik** jarraitzen duzue? (ofiziala edo ez, agerikoa edo ezkutua...)

Hezkuntza-sistema barruko eskola ofizial eta omologatu bezala, Euskal Herriko Currciulum Ofiziala jarraitzen dugu. Baina hori jarraitzeko, konpetentziak edukien bidez lantzen ditugu. Eta eduki horiek modu ezberdinetan landu daitezkeenez, guk aukera eta egokitu ditzakegu esperientziak eta ekintzak, konpetentzia horiek garatzeko. Horrek eskolak anitzak izateko aukera ematen du; eskola bakoitza egokitu daitekeelako guztion beharretara. Koherentzia mantendu daiteke, hala. Aukera anitzak daudenean, behar eta nahi anitzak daudelako izaten da.

Hala ere, ezagutzen ditut horrekin arazoak dituzten eta beste era batean egin nahiko luketeen beste eskola batzuk. Apurka-apurka badoaz aldaketak egiten. Eta pertsonalki garrantzitsua iruditzen zait aldaketa hori heltzea nahi duenari. Eta adi egon behar da; batzuetan gurasoek zerbait nahi dutelako eta haurrak ez daudelako ondo espazio horietan (estresa, tentsioak...). Gure eskolan gehienetan haurrek eskolara etorri nahi dute, pozik. Batzuetan, bestalde, ez datoz gogotsu (gehienetan Ganbarakoek asanblada nagusia dutenean; txikiei luze egiten zaie)

13- Zeintzuk dira **ebaluazio-** eta **kalifikazio-prozesuak**, egotekotan?

Asteroko bilera pedagogikoan haurren egoeraz hitz egiten da, irakasle guztien artean (ikasle guztiak daudelako uneren batean irakasle guztiekin, nahastuta dauden heinean), eta guztiok partekatzen dugu

zein esperientziak izan ditugun haur horrekin, begirada aberasteko. Horretaz gain une inprobisatuetan ere hitz egiten da. Gero, hiru hilabetean behin, helburuekiko zein puntutan dagoen haurra ebaluatzen dugu. Bestalde, urtean behin Eusko Jaurlaritzara bidaltzen ditugun aktak egiten ditugu, edozein eskolan bezala.

.....

14- Haurren **askatasun eta autonomiari** dagokionean, ezberdintasunik duzue hezkuntza sistema konbentzionalarekin alderatuz? Zeintzuk? Nola islatzen da hori praktikan? (Adibideren bat jarri) Noraino heltzen da askatasun hori zuen proiektuan, edo, zeintzuk dira mugak?

Neurriren batean, uste dut baietz; haurrek autonomia gehiago garatzen dute sistema konbentzional batean baino.

15- **Denboren** (haurren ikaskuntza- eta bizi-erritmoen, ordutegien, egutegien...) **kontrolik** ematen da? Hau da, heldu batek zehazten eta mugatzen du hori?

Gu saiatzen gara ahal dugun heinean haien erritmoetara moldatzen, baina batzuetan guk ezartzen dugu erritmoa eta haiek moldatu horretara. Azken bi urteetan ikusten ari gara, helburu batzuk bermatzeko, gure erritmoa jarraitu behar dugula (5. eta 6. mailatan). Hor lan pertsonala, guk proposatutakoa, erabiltzen dugu. Hor sentitu dezakete kanpoko erritmo bat dagoela. Baina, azken urteetan (6. mailara heltzen ari direnak hasieratik hemen egondakoak dira), eta giro nahiko positiboa nabaritzen dugu lanekiko eta ikaskuntzarekiko motibazioa. Nagusiontzat ere motibagarria da, ikusten dugulako gauzak prestatzen goazen heinean haiek badoazela parte-hartzen, ikasten, eta gehiago eskatzen. Egia da haur hauek oso espontaneoak direnez eta oso parte-hartzaileak direnez, gehiegi izan daitekeela Master-Class batean isilik eta nagusiak esaten duena entzuten egon behar denean. Guk eskertzen dugu parte-hartzaileak izatea eta proposamen asko luzatzea, nahiz eta batzuetan arazoa izan.

Denborak errespetatzen ditugu, baina batzuetan fortzatu egin behar dugu, curriculumak eskatzen diguna betetzera heltzeko. Baina sentsazioa atsegina da.

16- Haurrekiko eta haien behar zein interesekiko **errespetuari** dagokionean, ezberdintasunik duzue hezkuntza sistema konbentzionalarekin alderatuz? Zertan islatzen da errespetu hori praktikan? (Adibideren bat jarri).

Erantzunda.

17- Zuen metodologiek zer nolako lotura dute haurren **ahalduntzearekin**, beste metodologia konbentzionalagoekin alderatuz?

Haiekin haien bizitzako etapa txiki -baina garrantzitsu- batean gaude. Baina etapa horri erreparatuz, bai sentitzen dut arrakasta bat bezala haiek kuriosoak eta aktiboak izatea lortzea. Haien gustuekin konektatuta daude, haien artean mugak jartzen dakite, konfliktuak daudenean adostasunera heltzeko trebeziak dtuzte, akademikoki ikasten dute...

Beste eskola batzuetatik datozen haurrak sartu direnean ikusi dugu haien artean -oinarrizko gauzetan- alde handirik ez dagoela; eta horrek lasaitasuna eman digu.

Familiak asko baloratzen dute haurrak eskola honetan aktibo-bital drela. Bizitza oso luzea da, eta ikasteko kuriositatea galtzea pena da; beti dugulako aukera ikasteko bizitzan zehar. Gizartea etengabe moldatzen egongo da etorkizunean. Eta ikasteko ahalmena dugula sentitzea eta naturaltasunez bizitzea, gizartean oso baloratutako ezaugarri garrantzitsu bat izango da. Familia eta haurrentzat altxor bat da.

.....

19-Ematen den hezkuntza **holistikoa** da? (Disziplinartekoa, integrala, pentsaera aniztasuna bilatzen duena...). Praktikan lortzen dela uste duzu?

Lehenengo urteetan (6 urte daramatzagu) agian holistikoagoa zen, irakasten zen guztia haien interesen eta proposatzen zituzten proiektuen arabera zelako. Ez zen ezer irakasten haiek eskatu arte. Baina, denborarekin, ikusten genuen ez ginela heltzen gauza batzuk irakastera. Eta orduan guk zuzendutako lan pertsonala eta bestelako tresnak hasi ginen erabiltzen. Momentu horretan puntu nahiko orekatuan gaude; guk irakatsi nahi dugunaren eta berez ikasi nahi dutenaren artean. Biak daudenez, lasaitasuna ematen digu. Eta esango nuke espontaneotasunerako aukera dagoenez abordaje holistiko hori ematen dela; izan ere, espontaneotasun horren barruan arlo emozionalerako espazioa dago eta, beraz, interesatarako. Hor lantzen da gorputz fisikoa, gorputz emozionala, gorputz intelektuala, eta baita gorputz espiritualala. Azken honekiko sentsibilitate handia dago bai gure aldetik bai familien aldetik; momentuz horren presente ez dagoen arren, errespetatzen dugu. eskola bezala ez dugu ofizialki arlo espiritualala lantzen, baina sentsibilitate handia badago.

20-Uste duzue **irakaskuntza ikasteko bide bakarra** dela? Hau da, uste duzue norbait zerbait irakasten egon behar dela haurrek ikasteko?

Alde batetik bai, eta bestetik ez. Horregatik bilatzen dugu aipatutako balantza hori. Etengabe ikasten ari dira, batzuetan gu konturatu gabe. Ingurura begira daudelako, besteek zelan ikasten duten ikusten, ikasten dute. Haur batzuek gehiago parte-hartzen dute, beste batzuek behatu... bakoitzak bere izaera du. Gero guk lagundu ahal diegu esperientziak proposatzen ikasteko. Eta hori oso garrantzitsua da; ze gu hori egiten egongo ez bagina, esperientzia horiek espazio horretan presente egongo agian. Ez dakigu nola egin arlo batzuk haurrek autonomoki ikasteko, eta modu bakarra guk irakastea da. Kasu horietan haiek errezago edo hobeto ikasten dute gure lanaren arabera. Baina ez diegu protagonismoa lapurtzen; benetan ikasten dutenak haiek dira. Batzuetan gertatzen da ez dutela ikasi nahi; arrazoi emozionalengatik askotan: haserre nago zurekin eta ezin naiz zabaldu zugandik zerbait ikastera.

Errezago ikasten dute nagusi batek zerbait irakasten dielako. Hor gu izan gaitezke protagonistak, esperientzia interesgarri edo dibertigarriak eskeintzen dizkiegulako. Baina protagonismoa lapurtu gabe. Ikasi nahi badute, ikasiko dute; bestela ez. Gure meritua da esperientzia proposatzea.

21- Langile **profesionalei** dagokienean... irakasleak dituzue, edo bidelagun/laguntzaileak? Edo beste figuraren bat? Zein da pertsona horien **rola** edo egin-beharra?

Hasieran bidelagunaren perfilarekin identifikatzen ginen gehiago, eta orain ikusi dugu irakaslearen perfila une batzuetan beharrezkoa dela. Oraingo haur nagusienek txikiak zirenean bidelagun bezala ikusten gintuztenez, orain askoz errezago onartzen dute irakaslearen perfila. 6 urtez egon gara haiekin, eyta gauza asko bizi izan dituzte gurekin.

22- Nork egiten du **ikaskuntza-prozesuaren kudeaketa** eta erabaki-hartzea? Heldu batek (irakasle/bidelagun...) edo hurrek?

Erantzunda.

....

23- Zure ustez, zein neurritan laguntzen du zuen proiektuak **hezkuntzaren eraldaketan** eta berrikuntzan? (Haurrengan, orokorrean sistema osoarengan...). Zeren bidez laguntzen duzue bide hori eraikitzen?

Familia eta irakasle batzuen beharrak asetzearekin jada sistema laguntzen ari gara; behar batzuk zeudelako eta asetzen ari direlako. Horrekin jada nahikoa da; garrantzitsua da. Baina, horretaz gain, sentitzen duguna da jende gehiago horrelako esperientziak bizitzera animatzen bada, gu prest gaude erreferentzia bat izateko. Ze guretzat jende gehiago inguruan izatean errezagoa izango litzatekeelako dena; horrela sinergiak egon daitezkeelako. beharbada horrela ere itunpeko bihurtuko ginen, eta onartuagoak izango ginateke. Hori gure proiektuarentzat lagungarria litzateke. Baina mometuz gure oinarritzko helburuak asetzen ditugunez, nahikoa da guretzat. Eta egiten dugun ekarpena: adibidez zu bezalako pertsonak galdezka etortzean, inguru aberastan dugu, beste era batean gauzak egin daitezkeela partekatuz. Horretarako 6 urte gutxi dira oraindik, goiz da eraldaketa handiak egiteko.

24-Zuen proiektuak **gizarteari begirako helbururik** du? (adib: gizarte- eta ingurumen-justizia lortzea...)

Hezkuntza beste era batean egin daitekeela erakustea. Uste dugu esperientzia nahiko dugula momentu honetan horretarako; eta laster urratsak ematen hasiko gara.

25- Esango zenuke zuen proiektuak hezkuntza **kritiko eta demokratikoa** daramala aurrera? Zein helburuekin?

Guk herramienta batzuk proposatzen ditugu praktikatzeko, baina helburua ez da kritikoa izatea. Batzuetan funtsarik gabeko kritika ez da baliogarria. haur batzuk kritikoak dira baina edozein gauza kritikatzan dute, eta atzetik ez dago argurio sendorik eta aukera alternatibarik. Abererasteko egiten denean, kritikotasuna positiboa eta eraikitzailea da Baina, beste batzuetan, edozein gauza kritikatzan dute; emozioetatik. Eta hori ez dator arazotik; kanpoko istorio bat da barruan sartzen dena.

Guk uste dugu lortzen dugu hurrek haien buruarekiko konexioa eta errespetua mantentzea, eta errespetaraztea, nahikoa dela. Ideiak dituztenean, asanblada izango dute beti ideia hau aurkezteko; eztabaidatzeko... baina bertan esaten den edozein gauza onartua izango da (beste gauza bat da hori egitea, horretarako adostasun bat egon behar da). Pertsona moduan emozionalki sendoak badira, edozein iritzi dutelarik indar nahiko izango dute aurkezteko. Gu segurtasuneko esparruak (haiek hitz egin dezaketela sentitzeko) mantentzen ahalegintzen gara; hori da gure lana, eta ez haiek adostasun batera heltzea edo guk epaitzea ondo egin duten edo ez. Horri esker elkarri arreta ematen diote; erlazioak santatzen dituzte. Horrela autonomia lortzen dute (adosteko, emozionala...) Hori da garrantzitsuena, eta ez kritikoak izatea. Baina haien ideiak defendatzerakoan, kritikotasunarekin, besteen ideieak hartzen dituzten aintzat konponbide bat lortzeko. Kritikotasun horrek laguntzen die adostasun batera heltzen, baina batzuetan ez daude prest adostasunera heltzeko eta ez da forzatzen konponbidea. Batzuetan arazoa emozionala da; emozioa oso handia da eta ez die uzten konponbidea ikusten.

26-Zein da zuen proiektuaren **azken helburua**, edo helburu nagusia?

Haiek eskolan duaden bitartean, hazteko leku seguru bat bermatzea. Eta hazkunde horretan, curriculumaren bidez ikastea puntu gero eta garrantzitsuago bat da; baina beti ere hasieratik izan dugun bidea ahaztu gabe. Horregatik orekatzen joan behar gara beste hori galdu gabe. Proiektu hau leku bat da non haurrak aintzat hartzen diren eta haien erritmoak errespetatzen diren; eta horrela heltzen gara haurrak heltzen diren lekura.

27-Zeintzuk dira proiektu honek -alternatiboa den eina- dituen **oztopo, zailtasun edo gabeziak**? (Adibidez, oztopo legalak, ez-egonkortasun ekonomikoa, familien perfil-aniztasun falta...)

Oztopo bat: Udalerriak batzuetan kasu gutxi egiten digu (eraikinaren konponketei dagokienean...). Ekonomikoki: diru gehiago izanik, guk hobeto kobratuko genuke eta familiek gutxiago ordainduko lukete. Eta baliabide gehiago eskeini ahalko genituzke muga ekonomiko gutxiago bagenitu. Kontuak zaindu behar ditugu oreka mantentzeko. Baina oztoporik berez ez dugu sentitu; inor ez da gure kontra jarri. Batzuetan gure eskabideak (diru-laguntzak, itunpeko eskola izatea...) onartzea lagungarria litzateke, aitzitik. Hasieratik lan-talde sendo bat izan dugunez, arazoak edo egin-beharrekoak agertzen direnean konpontzen doaz. Oso argi izan behar duzu eta energia handia izan, eta hala bazoaz mugitzen eta lortzen modu batean edo bestean behar duzuna. Lortu daiteke.

28- Zure iritziz, hezkuntza alternatiboa **sistema publikora zabaltzea posiblea** litzateke, soilik eskola edo proiektu pribatu gutxi batzuetan egindako berrikuntza bezala geratu ez dadin? Hau da, pedagogia alternatiboak eskola publikoetan txertatu daitezke? **Nola?** Zeintzuk lirateke **muga edo oztopoak**?

Posible da, guztiz. Katalunian badude adibide batzuk, baita Santanderren ere. Euskal Herrian Amaraberri.

Lehen pausoa: jendea batzea (irakasle, guraso eta batzuetan ikuskariak...), eta planteatzea irakaskuntza sailari. Marko baten barruan (ezberdina testuinguru bakoitzeko) dauden ezaugarriak kontuan izanez, lortu

nahi dutena bilatzea. Eskola bat publikoa izanik, baldintza ezberdinak ipintzea. Eskola bateko irakasle guztiak ados ez badaude aldaketa egitean, irakasle horiek beste eskola batera joaten dira normalean. Bestelako irakasleak sartzen doaz, eta eskolako giroa aldatzen doa. Haur txikietatik hasita, gutxinaka. Errazago eskola txikietan. Eskola publiko berriak sortzean ere, zuzenean sartzen den irakasleagoak ezaugarri horiek baditu, errazagoa (baina kasu horietan atzetik mugimenduak egoten dira jada). Kasu guztietan koinziditzen duena: Pertsonak aldaketarako asmoa izatea, eta modua bilatzea. Formakuntza jaso dute, baita ere.

Oztopoak: Aldaketa ez denean gertatzen, seguruenik jendeak nahi ez duelako da (gehiengoak..). Ez dagoelako energia edo gogo nahikorik. Batzuetan gizarteko arlo batzuek sistema kritikatzeko dute baina ez da ezer egiten aldatzeko edo ezer eraikitzen. Seguru badaudela borrokatzen ibili baina ezer lortu ez dutenak. Baina badaude kasu errealeak. Gizartean benetan aldatzeko beharra badago posiblea da. Behar horrek indar handia ez badu, aldaketa beranduago lortuko da. Noiz? Aldaketa lortu duten beste eskolek erakusten dutenean posible dela. Masaren edo gehiengoaren aldaketarako, lehenago gutxi batzuek aldatu behar dute. Sentitzen dut gu lan hori egiten ari garela. Besteak errazago etorriko dira, ereduaren laguntzaz. Une batean ikusten duten errealitate tradizionalak suposatzen dien minak pisu handiagoa izango du aldaketak suposatzen duen esfortzuak baino. Aldaketa hori etorriko da.

(Beste galderetan zehar honen inguruan esan duena)

Ulertzen ditut erratio handietan ematen diren arazoak. Baina posible da sistema publiko batean, 25eko erratioa duen batean, gauzak ezberdin egitea. Eta horretarako familia eta irakasleen arteko adostasun bat egotea garrantzitsua da; egongo ez balitz egoera ez-atseginak egongo lirarteke. Nik ezagutzen ditut gauzak era ezberdinean egiten ahalegindu diren klaustroak, baina familiek ez zuten sinisten edo beldur dira (adibidez etxerakolanak ez egitearen ideaz; bestela haurrek ikasten ez dutela pentsatzen dutelako edo ez dakitelao hainbetse orduz hurrekin zer egin). Bestelako familiak ere badaude; etxerakolanak nahi ez dituztenak, familia aberatsak direlako eta hurrekin egoteko baliabideak dituztelako. Baina batzuetan irakasleak dira hori nahi ez dutenak. Biak uztartzen baldin badira, primeran.

Badaude esperientziak non eskola publikoetan gauzak beste era batean egiten dituzten: Bi gela elkartzen dituzte eta bi heldu jartzen dituzte. Gutxienez bi nagusi egonda, haur gehiago egon arren, perfil eta harreman aberastasun handiagoa dago. Beste eskola batzuetan eskolaz kanpoko pertsonak -ez ofizialki- gelara gonbidatzen dituzte, eta erratioa jeisten da: guraso libreak... Nagusien presentziak eskolako harremanak asko baldintzatzen eta pertsonalizatzen ditu.

Sistema publikoan posiblea da erratio hauekin eta baldintza hauekin gauza ezberdinak egitea. Adibideak egon badaude Katalunian. Familia eta irakasleek hezkuntza sailarekin hitz eginda, lortu dute -egeak uzten duen heinean- gauza ezberdinak egitea. Legeak malgutasun nahiko du beti benetan nahi bada zerbait egin, jendeak energia badu... Euskal Herrian Amaraberri dugu: Egia da gelak daudela, baina gauza batzuetarako nahastuta daude; proiektu ezberdinak dituzte eskolan. Beraz, badago modu bat aldatzeko, eta eskolara jarrera pasitiboarekin ez joateko (ikasten dut irakasten didatelako). Hor haurra protagonista da, gauzak ekintzen bitartez eta proiektuen barruan ikasten ditu. Ikasketa Komunitateak ere

baditugu; interesgarriak dira. Horietako proiektu batzuk ere baditugu hemen eskolan. Bertan adin arteko haurren arteko harremana sustatzen dira, eta bidelagun familia eta haurrak nahasten dira.

Hezkuntza tradizionalak ez du erantzuten gaur eguneko haurtzaroak behar duena asetzen. Aldaketak egin behar dira. Eskola berri bat intentzio horrekin sortzean, aldaketa horiek berez eginda daude. Baina jada eraikitako egitura bat egokitzea askoz zailagoa da. Kasu horietan Amaraberri eta Ikaskuntza Komunitateak baliogarriak dira; sistema tradizioaletik atera direlako. Gu baliogarriak gara ikusteko gauzak ahal direla hasieratik ezberdin egin.

Hala ere, klaustro osoa eta familiak ados badaude aldaketa di-da egin daiteke. (Kataluinian bezala)

5. ERANSKINA: Elkarrizketa: 3. Bidelaguna.

ELKARRIZKETA

3. Bidelaguna

1- **Zergatik sortu** zen proiektu hau? Zein helbururekin?

Bi ama elkartu ziren, ez zutelako topatzen haien beharrianak betetzen zituen leku apropos bat, eta haien sortzea erabaki zuten. Bi ama horiek eskola honetako bidelagun edo antolatzaile bihurtu ziren (eta haien seme-alabak eskola honetan daude, baita ere). Haietako bat bidelagun edo ardatz printzipala zen, aurren eskolan ez dagoen arren. Bestea bidelagun da asteko egun gutxi batzuetan.

2- **Nork** sortu zuen?

Erantzunda.

3- Zeintzuk dira zuen proiektuaren **ezaugarri orokorrak**?

Hezkuntza sortzailea eramaten da aurrera. Esploratzeari ematen zaio garrantzia, naturan egoteari.

4- **Metodología** zehatz **bat edo batzuk** jarraitzen dituzue? Zeintzuk?

“Lenguaje no violento”, eta Steinerren metodologia sortzailea.

.....

Beste proiektu alternatiboekin komunean izan ditzakezuen alderdiak bilatze-aldera...

5- Egun, proiektu **autogestionatu** bat da hau? **Instituzioen laguntzak** jasotzen ditu?

Guztiz autogestionatua da, gurasoek antolatua; ez du instituzioen laguntzarik. Ez dago omologatua, eta pribatua da, beraz.

6- Hezkuntza **komunitate** osoaren (familia, haur, profesional...) **parte-hartzea** ematen da proiektua aurrera eramateko? Zelan, esate baterako? Zertan du **eragina** parte-hartze horrek?

Gurasoen parte-hartzea beharrezkoa da. Horrela, adibidez, bidelagunak gure lanean soilik zentratzen gara. Talde txikiak daude: bakoitzak alderdi bat lantzen du, eta horrela gestionatzen gara. Adibidez,

tailerrak, kanpoko norbaitek aurrera eramango duen ekintzaren bat, eta txangoak sortzeko eta antolatzeko gurasoen lan-talde bat dago; finantzak beste ama batek eramaten ditu; Boluntariotzen alderdia beste ama batzuek... Denon artean eramaten dugu aurrera. Proiektu horiek gestionatzeko funtsezkoa izateaz gain, beste eragin batzuk ere ditu komunitatearekiko lotura horrek: oso hurbileko harremana dugunez, badakigu familia bakoitzak zein behar dituen, zelan enfokatzan duten hezkuntza (ikusuntu komunak daudelako, baina ezberdin ere pentsatzen dute batzuek)...

7- Zein **ezaugarri** partekatzen dituzte **familia** horiek? (Esaterako, maila sozio-ekonomikoari, kontzientzia politikoari, sistema konbentzionalarekiko kezkei, edota seme-alaben hezkuntzarekiko motibazioari dagokionean).

Maila sozio-ekonomikoari dagokionean, egoera ezberdinak daude. Baina hezkuntza sistemari buruz denek antzera pentsatzen dute, bai. Eta baita beti naturarekin kontaktuan egotearen, esplorazioaren, mugitzearen eta praktikaren bidez ikastearen beharrak identifikatzeak batzen ditu familia hauek.

8- **Espazio** fisiko mugatu batean aritzen zarete? Edo aldakorra eta zabala da?

Eskolak espazio fisiko bat izan du; Domo bat jarri zuten. Baina aurrean eskola fisiko finko bat ez dugu izan; aldakorra da beti. Naturara joaten gara ahal dugun guztietan; hondartzetara eta basora. Euria egiten duenean bi aukera ditugu: Musika klasea inguruan dagoen proiektu autogestionatu batean (non gazte ezberdinak elkarrekin bizi diren; bakoitzak bere proiektua du -artistikoa...- baina egun bakarrik bizitzea ia ezinezkoa denez, gazte hauek horrela laguntzen dute elkar; eta espazio hori gurekin elkarbanatzen dute; pribatua den arren), eta beste aukera da Barrikako udalak uzten digun txoko bat.

9- Adinkako taldekatzea egiten da, edo **adin** ezberdinetako haurrak elkartzen dira?

Adin ezberdinetako haurrak daude denbora guztian elkarrekin, uste dugulako horrek haien artean gauzak ikasteko eta irakasteko orduan laguntzen duela (denek bai ikasi bai irakatsi egiten dutelako). Eskola honetan 3 urtetik 10 urterako haurrak daude, eta egun batzuetan (haurrak ez direlako zertan egunero joan eskolara) nahastuta egoten dira.

10-Zein da **erratioa**? (Zenbat haur daude talde bakoitzean, talde bat baino gehiago egotekotan?).

Haur kopuruaren arabera bi edo hiru bidelagun ditugu. Adibidez, astelehenetan 11 ume izaten direnean, bi bidelagun eta bidelagun boluntario bat egoten gara; eta ostegunetan 5 edo 6 haur etortzen direnean bidelagun bat eta bidelagun boluntarioa egoten gara. Talde bakarra dugu, guztira gehienez 11 ume daudelarik. 15 familia dira, baina batzuk ez datoz egunero.

11- Zein da zure **iritzia** ikaskuntza-gune “**masifikatu**en” inguruan? (Eskola masifikatuak ikasgela bakoitzeko 20 haur inguru dituztenak bezala ulertuz, esaterako) Zeintzuk dira, zure ustez, horren **ondorioak**?

Oso zaila da eskola horietan haur bakoitzak behar duena ikustea; ezinezkoa da bakoitzaren beharrianak kontutan hartzea. Denak erritmo berdineran joan behar dira, bakoitzak ezin ditu bere kezka azaldu eta bere erritmora joan. Eta irakasleak ezin ditu haur guztiak kontuan hartu. Horren ondorioak: haur asko eskolan daude egoteagatik.

12- **Curriculumik** jarraitzen duzue? (ofiziala edo ez, agerikoa edo ezkutua...)

Ez dugu curriculumik. Baina arau gutxi batzuk baditugu eskolan; komunean jarri zirenak. Gero familiak dira alderdi akademikoez arduratzen direnak; guk beharrian eta adinen arabera material edo gomendio batzuk eman ahal dizkiegu, baina haiak lantzen dute etxean. Kasu batzuetan, haur batzuk asteko egun batzuetan eskola publikora ere badoaz, eta hor lantzen dituzte alderdi horiek.

13- Zeintzuk dira **ebaluazio-** eta **kalifikazio-prozesuak**, egotekotan?

Prozesuak behatzen ditugu; haur bakoitza zein puntutan dagoen ikusiz, eta haur eta familiarekin elkarbanatzen dugu egunerokotasunean.

.....

14- Haurren **askatasun eta autonomiari** dagokionean, ezberdintasunik duzue hezkuntza sistema konbentzionalarekin alderatuz? Zeintzuk? Nola islatzen da hori praktikan? (Adibideren bat jarri) Noraino heltzen da askatasun hori zuen proiektuan, edo, zeintzuk dira mugak?

Bai, hemen nire ustez haurra autonomoagoak dira. Denbora gehiago dugulako bakoitzaren autonomia lantzeko eta behar duena ikusteko. Praktikan, adibidez, haien gauzekiko arduratsuagoak dira; normalean ez diet lagundu behar izaten haien gauzak hartzeko... Txikiek ere nagusien ereduak dute, eta elkarri laguntzen diote. Baina askatasun horren baitan ardura bat ere badago, eta askatasun hori amaitzen da besteena urratzen denean. Edo ezin dira bakarrik joan edo urrundu gure bistatik kanpo. nahi dutena egin dezakete baina errespetuaren baitan beti.

15- **Denboren** (haurren ikaskuntza- eta bizi-erritmoen, ordutegien, egutegien...) **kontrolrik** ematen da? Hau da, heldu batek zehazten eta mugatzen du hori?

Saiatzen gara erritmo horiek ez mugatzen. Haiak badakite eskolara heltzerakoan esploratzeko aukera daukatela; baina gero goizean zehar uneren batean elkartuko garela ere badakite, ongi etorria emateko, hitz egiteko, fruta apur bat jateko... Bazkariaren ordua eguneran eta momentuaren arabera ezberdina da; gosea dutenean hasten gara bazkaltzen; eta saiatzen gara jolasean baldin badaude, eta orduak bazkaltzeko unea dela markatzen badu, horri orduari kasurik ez egiten. Bukatzeko berdin.

16- Hurrekiko eta haien behar zein interesekiko **errespetuari** dagokionean, ezberdintasunik duzue hezkuntza sistema konbentzionalarekin alderatuz? Zertan islatzen da errespetu hori praktikan? (Adibideren bat jarri).

Hemen ez du axola zein adin duzun; interes bat izan dezakezu 3 urterekin edo beranduago... Haiek markatzen dituzte interesak. Eskola konbentzionalean interes zehatz batzuk izan behar dituzte adin zehatz batzuetan, eta hori da landuko dena (eta hortik kanpo ezebeaz). Hemen interesak libreki garatzen uzten ditugu. Guk materiala uzten dugu inguruan, egon daitezkeen interesak bete ahal izateko... Eta umeak interesa duen momentuan, orduan joaten gara hori azaltzera edo indartzera. Interesa pizten ahalegintzen gara, eta interesa duen momentuan ekintza dibertigarri edo material aproposarekin potentziatzen.

17- Zuen metodologiek zer nolako lotura dute haurren **ahalduntzearekin**, beste metodologia konbentzionalagoekin alderatuz?

Uste dugu gure pedagogiak haurrek haien buruarengan sinisten laguntzen dituela; hemen ez dugulako epaiketarik egiten, eta horrek segurtasuna ematen die, haien buruarengan konfidantza dute eta ahalduntzen dira.

18- **Sormenak** zer nolako papera du zuen proiektuan? Zertan du eragina sormenaren sustapen horrek, edo, zergatik da garrantzitsua?

Sormena gure oinarrietako bat da. Eredu bat eman gabe eta kondizionatu gabe, nahi dutena sortzeko askatasuna dute hemen; batez ere naturak berak ematen dizkigun eta eskura ditugun materialekin. Hainbeste material eman gabe, eskura dutenarekin hasten dira sortzen. Sormena modu horretan sustatzea garrantzitsua da, jada eginiko eredu bat ematen dizutenean kopia egiten delako eta zure esentzia ezin duzulako islatu. Hemen baoitzak bere ateratzen du.

.....

19-Ematen den hezkuntza **holistikoa** da? (Disziplinartekoa, integrala, pentsaera aniztasuna bilatzen duena...). Praktikan lortzen dela uste duzu?

Hemen dana modu integralean ikusten da, momentu bakoitzean dena elkarrekin lantzen zabizelako (matematika, marrazketa...). Uste dugu praktikan lortzen dela; adibide erreza bat egitean matematikak, psikomotrizitate fina, irakurmena, eta bestelakoak lantzen zabiz.

20-Uste duzue **irakaskuntza ikasteko bide bakarra** dela? Hau da, uste duzue norbait zerbait irakasten egon behar dela haurrek ikasteko?

Ezetz uste dut. Zuk zerbaitetan interesa duzunean, orduan da une egokiena zerbait ikasteko, eta hori zure kabuz egin dezakezu; gero baliabideak bilatuz, beharbada bidelagun bezala duzun pertsonari galdetuz.

21- Langile **profesionalei** dagokienean... irakasleak dituzue, edo bidelagun/laguntzaileak? Edo beste figuraren bat? Zein da pertsona horien **rola** edo egin-beharra?

Bidelagunak ditugu. Guk haurrei protagonistak izaten uzten diegu; haiek gidatzen dute eguna. batzuetan gauza batzuk prestatzen ditugu, baina normalean haiek behar dutenean bakarrik laguntzen diegu. Guk

behatu egiten dugu gehienbat (jolas librea delako oinarri); baina norbait datorrenean zerbait galdetzen, zerbait ikasi nahi duenean, edo errespetu faltaren bat ikusten badugu, orduan parte hartzen dugu.

22- Nork egiten du **ikaskuntza-prozesuaren kudeaketa** eta erabaki-hartzea? Heldu batek (irakasle/bidelagun...) edo hurrek?

Batez ere gurasoek erabakitzen dute. Bidelagunoi gurasoek pautak eman dizkigute (zelan nahi duten guk bidelaguntzea). Eta umeei beti galdetzen diegu, baita ere; beti haien interesak kontuan hartuz. Adibidez, hurrek erabakitzen dute non izango den eskola egun bakoitzean.

....

23- Zure ustez, zein neurritan laguntzen du zuen proiektuak **hezkuntzaren eraldaketan** eta berrikuntzan? (Haurrengan, orokorrean sistema osoarengan...). Zeren bidez laguntzen duzue bide hori eraikitzen?

Eskola honetako hurrek errespetu handiagoa dute naturarekiko; kontzienteagoak dira -esaterako-plastikoaren problematikaz eta antzekoez, natura hurbiletik bizi dutelako, eta bere parte sentitzen direlako. Erlazio zuzenagoa da, ikusten dutelako.

24-Zuen proiektuak **gizarteari begirako helbururik** du? (adib: gizarte- eta ingurumen-justizia lortzea...)

(Aurreko galderan erantzunda)

25- Esango zenuke zuen proiektuak hezkuntza **kritiko eta demokratikoa** daramala aurrera? Zein helburuekin?

Beste gauza batzuetan zentratzen gara gehiago.

26-Zein da zuen proiektuaren **azken helburua**, edo helburu nagusia?

Azken helburua naturarekin beti kontaktuan egotea, eta jolas librearen bidez eta esplorazioaren bidez mundua eta ikasi nahi duzun guztia deskubritzea.

27-Zeintzuk dira proiektu honek -alternatiboa den eina- dituen **oztopo, zailtasun edo gabeziak**? (Adibidez, oztopo legalak, ez-egonkortasun ekonomikoa, familien perfil-aniztasun falta...)

Familia batzuek oztopo legal batzuk izan ditzakete, adibidez. 6 urtetik gorakoek, batez ere. ez dugu ez-egonkortasun ekonomiko handirik nabaritzen proiektu honetan.

28- Zure iritziz, hezkuntza alternatiboa **sistema publikora zabaltzea posiblea** litzateke, soilik eskola edo proiektu pribatu gutxi batzuetan egindako berrikuntza bezala geratu ez dadin? Hau da, pedagogia alternatiboak eskola publikoetan txertatu daitezke? **Nola?** Zeintzuk lirateke **muga edo oztopoak?**

Uste dut posible litzatekeela pedagogia alternatiboak eskola publikoetan txertatzea. Baina gaur egun hori gertatzeko gauza asko aldatu beharko lirateke. Pandemia eta gero jende asko konturatu da naturarekin kontaktu gehiago izan behar dugula, eta eskola publiko batzuetan horrekin lotutako lanketak egiten hasi direla ikus daiteke (barazkiak landatzen, eta abar). Posiblea da; eta niretzat, gertatu behar den zerbait da. Eskola publikoetan pedagogia hauek txertatzen hasteko lehen pausoa naturarekin gero eta erlazio estuago bat lantzen hastea litzateke; baina baita sistema publikoan murrizketak ez egitea (erratioak kontuan izatea, irakasle geiago izatea, laguntza gehiago...). Muga nagusia erratioarena dela uste dut; irakasle bat ezin da egon 20 hurrekin.

29- Kontatzeko besterik bazenu...

Zuk sinisten duzun hezkuntza aukeratzeko aukera izatea da proiektu honetatik gehien gustatzen zaidana.

6. ERANSKINA: Elkarrizketa: 1. Familia.

ELKARRIZKETA

1. Familia

1-**Noiztik** dago zure alaba/semeari eskola honetan?

Orain dela bi urte sartu ginen proiektuan, justu konfinamenduarekin batera. Eskola honetan hondartzan daude bereziki, eta eguraldi txarra dagoenean beste tailer batzuk egiten dira leku ezberdinetan.

2-**Nola** izan zenuen eskola **honen berri**?

Nik lan gutxi egiten nuen denboraldi horretan (duela bi urte), eta egun batean nire alabarekin hondartzan geundela eskola honekin topo egin genuen, eta jolasean hasi ziren. Horrela hasi zen.

3- Zein zen zure **aurreiritzia** eskola/proiektu alternatiboen inguruan?

Alde batetik, interesatzen zitzaidan horrelako proiektu batean sartzea. Baina beti iruditu zaizkit pixka bat elitistak. Orduan nahiago nuen nire alaba beste leku motatako haurrekin egotea. Baina hau apur bat txirripaz agertu zitzaigun, eta egia esan ume ezberdinak daude proiektu honetan; eta azkenean ez zen hain elitista izan. Justo proiektu honetan tarifak ez dira hain altuak, eta horregatik familia ezberdinak daude.

4-**Zergatik erabaki** zenuen eskola/proiektu honetara eramatea zure alaba/semeari?

Une horretan justu konfinamendua eta geroko garaian geunden, eta justu hasi zen dinamika zera zen: gelako ume bat gaixorik bazegoen isolamenduan egon behar zen gela osoa, eta abar. Guk ez genuen gure alaba horrela egotea nahi, eta justu hau agertu zenez, eta naturan egoten direnez, muxukorik ez eramateko edo isolamendu horiek ez egiteko aukera onena iruditu zitzaigun.

5-Zein da zure **ikasketa-maila** eta **lan-alorra**?

Nik medikuntza ikasi nuen eta famili-medikua naiz. Nire bikoteak FP bat egin zuen, eta orain diseinatzaile eta bideo-egile moduan egiten du lan.

6-Esango zenuke **edozein familiak** duela **aukera** proiektu alternatiboetan sartzeko haien seme-alabak?

Ez, familia guztiek ez dute aukera. Bi familiekin gertatu zaigu diruarekin oso justu egonda azkenean proiektua utzi dutela. Oso zaila da zu barruan zaudenean ikustea eta onartzea elitismoa egon daitekeela eta familia guztientzat ez dela posiblea. Adibidez, pasaden urtean planteatu genuen kooperatiba antzeko

bat sortzea, eta diru nahiko ez duenak denborarekin ordaintzea (tailerrekin...). Baina, oso asanblarioak garenez, azkenean ez ginen puntu komun batera heldu eta linboan geratu zen. Baina nire ustez hori lortzea oso garrantzitsua litzateke, familia ezberdinak egon ahal izateko eta abar.

7-Zure seme-alaba eskola honetara ekartzeak **ahalegin-ekonomiko** handia suposatzen du, publikoa ez den heinean?

Bai, ahalegin apur bat egin behar dugu. Guk alaba eskola honetara soilik hiru egunez eramaten dugunez, ez da hain garestia. Baina datorren urterako egun gehiagotan eramatea planteatzen ari gara, eta ordaindu ahalko genukeen arren, ezberdina da. Baina behin halako proiektu batean sartuta, jada ez dugu gure alaba gela konbentzional (itxi...) batean ikusten. Oso zaila da orain aldaketa hori egitea.

8-Hezkuntzaren **zein alderdiri** ematen zaio **garrantzi handiena** eskola honetan? (Esate baterako; mugimendu librea, erritmo naturalak errespetatzea, naturarekiko erlazioa, ingurugiro eta material prestatuak edo ez-prestatuak, autonomia...)

Bereziki naturarekiko erlazioa. Baita ere: umeen autonomia errespetatzea; haiek erabakitzen dute zer ikasi nahi duten eta abar. Eta baita umeen erritmoa errespetatzea.

9-Zein **onura** ikusten dituzu eskola honetan, eta orokorrean hezkuntza alternatiboan? (Alderdi positiboak zure seme/alabarengan eta gizartearengan...) Zer da zuk **gehien baloratzen** duzuna?

Nire balore garrantzitsuena zera da: pertsona bakoitzaren ezaugarriak baloratzea. Eskola arrunt batean, erratioengatik edo denboragatik, azkenean umeak ia ia berdin tratatzen dira (nahiz eta erritmo lasaiago bat behar, taldearen edo irakaslearen erritmoa jarraitu behar da...). Proiektu alternatiboetan holako goxotasuna izatea (bakoitzaren erritmoekiko...) da garrantzitsuena.

Nik nire lanean (medikua naizen heinean) eskola konbentzionalen hutsuneen ondorioak ikusten ditut. Izan ere, normalean eskola arruntean dauden ikasleak, edo moldatzen dira, edo antsietateak, depresioak eta halakoak agertzen dira. Nik nahiago nuke nire alabarentzako goxotasuna edo bestelako erritmo bat egotea, bera holan ez bizitzeko. Gure proiektuan, adibidez, tresna emozionalak ez dira hainbeste lantzen, baina adiago gaude umeen emozioetara. Baina eskola arruntetan ez dago horretarako denborarik, eta bullying arazoak daude, ezin zaie behar duten arreta eman... Halako umeak ikusten ditut eta "bizirauten" bezala. Eta horrek ondorioak ditu bereziki osasun mentalean. Niretzako larriena da pertsonak "akonplejatuak" daudela, segurtasun faltekin... Eta hori txikitatik egin behar den lanketa da; baina eskola arruntetan ez dago denborarik, curriculuma betetzea delako garrantzitsuena, eta haurren beharren gainetik pasa behar bazara, pasatzen zara, egin behar dena delako. oso eskas geratzen da hori niretzat. Medikuntzatik nerabeengan suizidio saiakerak ikusten ditugu, eta zerbait txarto egiten ari garela ikusten dugu. Horregatik nago ni nire alabarekin kezkatuta, eta beste zeozer eman nahi diot. Ez dakit hau onena edo egokiena izango den; baina gutxienez bere erritmoa errespetatze hori da orain nik eman ahal diodana.

10-Zein **muga** edo **zailtasun** ikusten dituzu eskola honetan, edo orokorrean hezkuntza alternatiboan? (Alderdi negatiboak, zure kezkek, edo oraindik jorratu ez diren arloak; adibidez: oztopo legalak,

proiektuaren ez-egonkortasun ekonomikoa, familien perfil-aniztasun falta, haurrak hurrengo hezkuntza-etapetara moldatzeko zailtasun akademikoak...)

Horiek danak (*galderaren adibideetakoak*). Alde batetik, ekonomikoki ahalegin handia izan daitekeela. Bestalde, datorren urtean nire alabaren azken eskolaratze ez-derrigortuaren azken urtea izango da; eta jada bagabiz pentsatzen zer egingo dugun. Izan ere, badaude familiak eskola honetan oztopo legal handiak jarri dizkietenak, eta azkenean ez duzu horrela ibili nahi. Denbora asko baduzu proiektuak idazteko, eta borrokatzen ibiltzeko, agian ez duzu arazorik. Baina egunero duzun erritmoa izanda, pentsatzea norbait egongo dela matraka ematen (fiskaliara joateko...), ez dakizu prest egongo zaren jarraitzeko. Baina, esan bezala, jada ez dugu beste era batean ulertzen gure alabaren hezkuntza. Horrez gain, elitista izatea eta etorkinekin ez gotea niretzat oso limitantea da nire alabarentzat.

Baina datozen etapa akademikoetan izan dezakeen egoerak ez gaitu kezkatzen. Izan ere, beste proiektuen ereduarekin ikusi dugu ez dagoela arazorik. Haurrei askatasuna ematen badiezu, eta haiek era librean ikasi ahal badute, ikusten da haiek emozio handiagoarekin ikasten dutela. Eta orduan, ikastearekiko maitasuna handiagoa da; eta uste dut nire alaba, beste haur batzuekin konparatuz, matematika eta idazketa-irakurketa arloetan gauza konplexuagoak egiten dabil. Horregatik uste dut zentzu horretan (eduki aldetik) ez dela arazorik egongo; bai ordea metodologiarekin: mahai batean eserita ordu askoz egon behar izatea... Bai planteatzen dugula hemen jarraitu ezkerro salto hori zelan egin. Baina Laboragunekoekin hitz egiten, esperientzia luzea dutenez eta haien ikasleak jada unibertsitatean daudenez, badakigu normalean Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan egiten dutela saltoa. Beraz, ikusten baduzu pertsona gehiago daudela problemarik gabe salto hori egin dutela (eta batzuek gainera oso erraz), ba lasaiago geratzen zara.

11-Nola hobetuko zenuke hori?

Idealena izango zen hau maila publikoan sartzea; eta, beste herrialde batzuetan egiten den bezala, aukera hau edozein familiari ematea. Diru laguntzak ematen, ekonomikoki eskuragarri edo irisgarriagoa izango litzateke. Hori litzateke niretzat onena. Proiektu hauek maila publikoan onartzen badira, hezkuntza-etapen arteko salto edo zailtasun horiek gero eta errezagoak lirateke.

12-Zein uste duzu izango dela **hezkuntza alternatiboaren bidea** datozen urteetan? Etorkizun oparoa duela uste duzu? **Sistematik at, edo sistemaren barruan?**

Uste dut gero eta familia gehiagori interesatzen zaizkiela halako proiektuak; coronavirusaren arira beharbada. Beraz, eskaera handiagoa bada, azkenean administrazioak ez du proiektu hauek onartzea beste aukerarik izango. Kontua da sistema barruan sartzea zaila dela halako haurrak sistemari ez zaizkiolako hainbeste interesatzen sistema barruan, ez dira hain moldeable, manipulable edo “arditxoak” bezalakoak. Sistema barruan zaila ikusten dut; baina gustatuko litzaidake baietz.

13-Zure iritziz, **nola zabaldu** liteke hezkuntza alternatiboa **sistema publikora**, soilik eskola edo proiektu pribatu gutxi batzuetan egindako berrikuntza bezala geratu ez dadin?

Proiektu gehiago sortuz, eta eskaintza handituz (gero administrazioek sistema publikoan onartu behar izateko). Eskatzen. Azkenean militantzia bat bezalakoa da. Pixkanaka-pixkanaka administrazioetatik onartzen joango dira.

14-Lehenago azaldu duzu zergatik erabaki zenuen zure seme/alaba proiektu honetan sartzea eta ikusten dituzun onurak. Uste duzu **alderdi horiek** hezkuntza **publiko**-konbentzionalan ematea **ezinezkoa** dela? Zein **muga edo oztopo** ikusten dituzu pedagogia alternatiboak eskola publikoetan aplikatzeko? **Zein neurritan txertatu ahalko** lirarteke gaur egun? **Zein** uste duzu dela hezkuntza alternatiboa guztiontzat eskuragarria izaten **hasteko bidea**?

Uste dut ez dela posible pedagogia alternatiboak gaur egun eskola publikoetan txertatzea. Adibidez, herri honetako eskola publikoan arazo oso handia dago: oso eskola txikia da, herria asko handitu da, eta ez dira sartzen. Beraz, obra barrakoietan daude sartuta. Soilik espazio edo lekuaren aldetik arazo bat dago; niretzat hormigoizko patio batean egotea gogorra da. Eta nire alabaren erritmoak ez errespetatzea (ezin dutelako, pila bat ume daudelako, espazioak eta denborak presaz banatu behar dituztelako helduek; jantokian azkar jan behar da arrazoi berdinetatik, muxukoak...) ez da batere lagungarria edo atsegina. Haurrentzat oso gogorra da. Gainera, bereziki gogorra ikusten dut proiektu honetan hasi garenetik, hemengo goxotasuna eta askatasuna ikustean. Bestalde, erratioak dena baldintzatzen du: pertsona bat badago 15 hurrekin, ez dituzu begi nahiko haur guztien zailtasunak eta arazoak ikusteko. Ahal duzuna egiten duzu. Norbait txarto badago, ahal duzun moduan kudeatzen duzu; eta normalean oso zaila da kalitatez egitea.

Eskola konbentzionalak dauden moduan (espazio, denbora eta erratio horiekin), pedagogia alternatiboen zerbait aplikatu ahal baliz, beharbada umearen erritmoa errespetatzea gehiago egin litzateke. Adibidez, fitxa bat egin nahi ez baduzu, eta salto egin nahi baduzu, ba salto egiteko aukera izatea; nahiz eta gela barruan egon. Ez behartzea une bakoitzean gauza bat edo bestea egitera. Azkenean horrela lortzen den bakarra da hurrek maniak hartzea. Esaterako, proiektu honetara beste eskoletatik etorri diren hurrek zuk matematika hitza esatearekin soilik ikus dezakezu gorroto dutela jakitea eta ikastea. Eta hori oso larria da; txikitatik amorru hori hartzea oso penagarria da. Beraz, agian haien erritmoak errespetatzen lortu daiteke bakoitzak bere momentuan ikaskuntza bilatzea.

Pedagogia alternatiboak hezkuntza publikora ekartzeko lehen pausoa: Erakustea halako proiektuak (unibertsitatetik...); horrela agian administrazioetatik kontuan hartzen hasiko direlako eta zerbait alternatiboa dagoela onartzen. Adibidez, Katalunian badago mugimendu handiagoa, eta administrazioetatik onartzen ari dira. Baina hemen ez-ikusienak egiten dute. Beraz, bisibilizazio neurriak ikerkuntzatik edo unibertsitatetik hartuta, onartzen hasi daitezke; eta onartzen hasten badira, bagoaz pausoak ematen.

7. ERANSKINA: Elkarrizketa: 2. Familia.

ELKARRIZKETA

2. FAMILIA

1-**Noiztik** dago zure alaba/semea eskola honetan?

Proiektua hasi zenetik daude eskola honetan. Alaba bat hiru urterekin, eta bestea bi urte eta erdirekin hasi ziren. Lehenak orain 17 urte ditu, eta besteak 14.

2-**Nola** izan zenuen eskola **honen berri**?

Eskolako eragileetako bat Amaren neba da. Guk proiektua bizi izan genuen hasieratik. Gero maider jaio zen eta zein eskolara eraman edo eskolara ez eraman planteatzen hasi ginen, eta proiektu honetan sartzea erabaki genuen. Izan ere, justu koinziditu zuen proiektu hau jarri zela martxan Alaba batek 3 urte bete zituenean, eta 3 urterekin hasten dira haurrak proiektu honetan. Guretzat oso erraza izan zen, proiektua hasi baino lehenago ezagutzen genuelako. Gurasoak izanda, askotan hitz egiten genuen hezkuntzari buruz. Gainera, proiektua existitu eta martxan jarri aurretik bilera eta aurkezpen pila bat eta talde pedagogikoaren lan handia egon ziren. Haietako askora inguruko edo hurbileko familiak gonbidatzen gintuzten. Proiektu hau hasi aurretik jada bazegoen familia-talde bat; 8 familia inguruk sortua.

3- Zein zen zure **aurreiritzia** eskola/proiektu alternatiboen inguruan?

Ez genuen aurreiritzirik. Gurasoak izan aurretik ez zitzaigun asko interesatzen. Egia da beti oso militanteak izan garela; eskaut talde bateko monitoreak izan ginen, eta alternatibak bilatzen asko konbentzitzen ez gintuzten gauzei. Beraz, seguruenik aurretiaz prest geunden halako proposamenak entzuteko eta irekiak izateko. Baziren zenbait gauza, gure gurasoek gurekin egin zituztenak, ez genituela errepikatu nahi. Baina uste dut hau seme-alabak dituen edonork planteatzen diola bere buruari. Baina ez genekien ezer erez hezkuntzaren inguruan. Irakurtzen eta jakiten hasi ginen Maider jaio zenean; baina lehenago ezer ere ez.

Hasiera batean eskola mota hauek “gueto” antzeko bat edo elitista izan daitezkeela entzun dezakezu (familia guztiak berdinak...), eta horrela haurrek gizartea benetan zelakoa den ezagutuko ez dutela. Baina gure kasuan praktikan ez da inondik inora horrela izan: mota askotako familiak daude.

4-**Zergatik erabaki** zenuen eskola/proiektu honetara eramatea zure alaba/semea?

Gauza kurioso bat, nik beti gogoratzen dudana eta niretzat inportantea izan zena: Maidera jaio zenean nire amak modan zegoen liburu bat oparitu zidan (“Duermete niño”), zure haurtxoa beste gela batean lokartzeko teknikak azaltzen dituen (negarrez egiten utzi behar duzu nekatu arte, joango ez zarela jakin dezan, eta lokartu dadin...). Liburua irakurri genuen eta “sinmas” iruditu zitzaigun; “ah, bale, ondo” pentsatu genuen. Proiektuko bidelagun edo eragile batek liburu hori gure etxean ikusi eta beste bat gomendatu zigun: “Bésame mucho”; cómo criar a tus hijos con amor”. Eta hain ziren ezberdinak, haietako batek gezurra esan behar zuela. Ezin ziren soilik iritzi ezberdinak izan; ezinezkoa zen bakoitzak arrazoï apur bat izatea. Lehenengo liburuak ez zegoen batera konektatuta gurekin; ez ginen ausartzen liburuak esaten zuena egitera. Pero será lo que hay que hacer. Baina “Bésame mucho” irakurri genuenean, gure haurra horrela tratatu nahi genuela jakin genuen. Hor egin genuen “klik”.

5-Zein da zure **ikasketa-maila** eta **lan-alorra**?

Aita: Formación profesional ikasi. Eta egun dokumentalak eta bideoak egin (zuzendaria eta gidoilaria). “Rollo artistikoa”.

Ama: Zuzenbidea ikasi, eta udaletxean lan egin abokatu lez.

Proiektu honetan, orokorrean, asko irakasleak dira.

6-Esango zenuke **edozein familiak** duela **aukera** proiektu alternatiboetan sartzeko haien seme-alabak?

Bi klabe garrantzitsu daude: Alde batetik, legetik kanpo zaude; eta hori eramaten jakin behar duzu, nahiko angustioso izan daitekeelako. Eta, bestetik, eskola publikoa ez denez, zuk ordaindu behar duzula (proiektu zehatz hau oso garestia ez den arren).

Horretaz gain, zu zeu proiektuarekin eraldatzen joan behar zara. Orain gertatzen ari zaigun gauza bat, adinarekin lotua, zera da: Proiektuarekin batera hasi ziren haurrak orain nagusiak izaten hasi dira (Maidera bezala); eta “orain zer?” galdetzen diogu zure buruari. 14 edo 15 urte betetzen dituen zerbait ikasten hasiko diren edo ez, etorkizunerako baliagarria izan daitekeen tituluren bat izango duen.... Zalantza mota horiek etortzen zaizkizu burura. Hasieran beste duda batzuk dira: idazten eta irakurtzen ikasi... Eta bazoaz ikusten alderdi horiek arazo gabe garatzen dituztela. Baina momentu hauetan, zalantza hauek ditugu. Eta kanpoko presio hori kudeatzen jakin behar da.

Proiektu hau betirako izan behar den “egiteko modu” eta bizitzeko modu bat bihurtu behar da; bestela badirudielako 16 urtera heltzean egin duzun guztiak ez duela ezertarako balio (presioagatik). Eta guk gure alabekiko errespetua eta barrutik kanpora ikasteko dinamika mantendu dugu. Baina gure inguruan ikus dezakegu inguruko presioak direla eta seme-alabek 16 urte betetzean proiektua uzten dutela. Guk ez dugu presio hori; gure ustez ez da ezer pasatzen berehala sistema arautuan ez sartzeagatik. Izan ere, bizitza oso zabala da eta garrantzitsuena da nahi duenagatik mugitzen jarraitzea, errespetatua izaten

jarraitzea eta gauzak egiteko beharra eta benetako nahia sentitzean egitea (eta ez egin behar direlako, horrek ez baitzaitu inora eramaten). Familia, bezala horretan mantendu behar zara. Ikasten eta garatzen zoaz.

Halako eskola batean egotean gauza ez-erosoak dituzu; baina ez-erosotasun materialak direla esaten dugu beti. Esaterako, ez-erosoa da urrun dagoelako; edo publikoa ez den heinean dirua inbertitu behar delako; edo ordutegia (ordu gutxiago...), eta abar. Baina gero seme-alabak ondo ikusten dituzu, elkarrizketa bat mantendu dezakezuela, oso orekatuak daudela, zelan erlazionatzen diren haien artean...Gauza garrantzitsuak oso ondo doaz. Ez-erosotasunak materialak dira, beraz. Baina, noski, badago jendea ez-erosotasun material horiei ezin diela aurre egin.

7-Zure seme-alaba eskola honetara ekartzeak **ahalegin-ekonomiko** handia suposatzen du, publikoa ez den heinean?

Guretzat ez. Baina beste batzuentzat bada esfortzua. Proiektu honek “vale pasta”. Kuota, garbiketa, autobusa (bestela kotxez eraman). Baina arazoak egon direnean ekonomikoki familiaren batekin, eskola hauek moldatu egiten dira; akordioaren batera hel zaitezke eskolarekin (deskonturen bat...). Ez da inor kanpoan geratu ordaindu ezin izanagatik. Eta ez da oso garestia; ez da eskola pribatu normal bat bezalakoa.

8-Hezkuntzaren **zein alderdiri** ematen zaio **garrantzi handiena** eskola honetan? (Esate baterako; mugimendu librea, erritmo naturalak errespetatzea, naturarekiko erlazioa, ingurugiro eta material prestatuak edo ez-prestatuak, autonomia...)

Guretzat garrantzitsuena: barrutik kanpora haztea. Baina baita naturarekiko erlazioa, autonomia, errespetua... Baina errespetua zentzu guztietan. Proiektu honek zelan funtzionatzen duen eta bertako ikasleei zer eskeintzen dien ulertzean, guri ere guraso bezala hausnartarazi eta irakatsi digu gure alabekin erlazionatzen. Etxean ez ezik, lanean ere erlazionatzen eta besteak errespetatzen ikasi dugu. Bizi-estiloa aldatu digu. Konparatzeko duguna guk gure gusaroekin genuen erlazioa da, eta ez du zerikusirik (nik haurtzaro zoriontsu bat izan dudana arren). Etxe honetan guztion iritziak eta beharrak hartzen dira kontuan, eta hori nire haurtzaroan ez zen horrela. Lauko talde bat gara hemen, bakoitzak bere papera duenari

Proiektu honek ez du hezkuntza-programa zehaztu bat. Une bakoitzean zer ikasten ari diren eta zein ezagutza intelektual jasotzen ari diren jakitea ez zaigu gehiegi interesatu edo kezkatu. Bidea haiek (alabek) egin behar dute, eta beraz haiek doaz bilatzen. Etxean ez dugu inoiz errefortsurik egin irakurmenean, idazmenean, edo matematika. Ikaskuntza barrutik kanporakoa izan behar denez, ulertu dugu ez dutela kontrol hori (zelan eboluzionatzen ari diren jakitea) behar. Haiek egin behar dute autokontrol hori. Gero bazoaz ikusten bizitzarekiko eta gizartearekiko interesa duten pertsonak direla; eta bizitzak ikastera zaramatza. Proiektu honetan ez dago klaserik; haien interesen arabera ikasten dute. Eta interesak bazituztela, eta haien arabera ikasten zihoazela ikusten genuenez, lasai geunden. Hasiara batean agian kezkatzen zaitu eskolarizatuak (sistema tradiizionalean) dauden beste haur batzuekin erlazionatzen zarenean, gure alabak “martziana” batzuk izango ez ote diren. Baina haur horiekin era oso normalean

erlazionatzen direla ikusten duzu, eta erlaxatzen zara. Garrantzitsuena da hurrek erlazionatzen jakitea, zer nahi duzun jakitea, egiten ari zarena zergatik egiten duzun jakitea...

Adibidez, Maider “tema de interés” izeneko ariketa bat egiten zegoen, zeinetan interesatzen zitzaien zerbaiten inguruan idatzi behar zuten. Hurrengo egunean entregatu behar zuten, eta hiru orri zeramatzan idatzita, baina ez zitzaion gustatzen eta ezabatu egin zuen gaueko 12etan. Eta beste gauza bat idatzi zuen. Ez zitzaionez interesatzen, ez zuen egin (entregatu). Orain, bera da bere etorkizunaren inguruan erabakitzen dabilena; barrenetik, benetan nahi duena zer den ulertuz, eta kanpoko presioengatik erabaki gabe. Guk atzerpauso bat ematen ikasi dugu, ez interbenitzen. Laguntza behar badu, va a surgir. Bere erritmoa errespetatu behar da. Hori proiektu honek irakatsi digu.

9-Zein **onura** ikusten dituzu eskola honetan, eta orokorrean hezkuntza alternatiboan? (Alderdi positiboak zure seme/alabarengan eta gizartearengan...) Zer da zuk **gehien baloratzen** duzuna?

Erantzunda.

10-Zein **muga** edo **zailtasun** ikusten dituzu eskola honetan, edo orokorrean hezkuntza alternatiboan? (Alderdi negatiboak, zure kezkak, edo oraindik jorratu ez diren arloak; adibidez: oztopo legalak, proiektuaren ez-egonkortasun ekonomikoa, familien perfil-aniztasun falta, haurrak hurrengo hezkuntza-etapetara moldatzeko zailtasun akademikoak...)

Aipatutakoez gain... Urruntasuna: Gu beste hiri batera bizitzera etorri behar izan gara proiektu honetan egon ahal izateko. Baina ez dugu arazo bat bezala ikusten, aukera bat bezala baizik. Aipatutako ez-erosotasun materialak dira; eta urteak igaro ostean garrantzitsuak ez direla ikusten duzu. Orduetara ere moldatzen zara. Edo kotxearekin gora eta behera ibili behar zara. Baina arazo horiei konponbide bat bilatu beharrak haztea eragiten du. Adibidez, ez-egonkortasun legalak “alerta” egotea eragiten du. Edo beste herri batera bizitzera zoazenean eskolagatik, nolabait estás tomando las riendas de tu vida. Zure bizitza nolakoa den erabakitzen ari zara, aldaketei aurre eginez. Hartu duzun erabakiaren ondorioak onartzen dituzu, eta aukera bezala ikusi.

11-**Nola hobetuko zenuke** hori?

Ez-egonkortasun legalaren kasuan, adibidez.... Eskola hau legala bihurtzen bada, kontuak eskatzen dizkizute. Eta orduan jada ezin duzu nahi duzuna egin proiektu horretan. Hau da, zuk administrazioei ekonomikoki laguntzeko edo omologazioa emateko eskatzen badiezu, hezkuntza frogatzeko eskatuko dizute. Hala, guk eskola librea ulertzen dugun hori ezin izango litzateke eman (herrialde honetan behintzat). Gainera, prozesu horiek ez dakizu zertan amaitu daitezkeen; beharbada sare ofizialean eskolaratu nahi ez duten familien jazarpen batean amai daiteke.

Beraz, alde batetik diskurtso honek ez-eraldatzailearen itxura izan dezake; ez duzulako nahi gauzak maila legalean aldatzea, ez duzu administrazioa ebidentzian jartzeko borrokarik egiten, lo haces con un perfil bajo... badakizulako zer datorren. Eta zuk une honetan zure alabak ondo egotea nahi duzulako (eta

ez 20 urteko borroka batean sartu, bitartean zure alabek eskola normal bat jasaten dutelarik). Beraz, ez-eraldatzailea dirudi. Baina, aldi berean, eskola horrek funtzionatzea eta hara doazen hurrek hori bizitzea eta haien bizitzan izatea lortzen ari zara. Eta horrek eraldatu egiten du. Eraldatzailea da familia asko gaudelako, eta inguruan dugun jende guztiak onurak ikusten dituelako. Hots, zure hurbileko ingurua eraldatzen duzu.

12-Zein uste duzu izango dela **hezkuntza alternatiboaren bidea** datozen urteetan? Etorkizun oparoa duela uste duzu? **Sistematik at, edo sistemaren barruan?**

Etorkizun batean bakoitzak erabakitzeko aukera duen herrialde bat izatea gustatuko litzaidake; homeschoolling-a guztiz legala izanik. Baina homeschoolling-a erregulatuta balego seguruenik arazo gehiago izango genituzke. Beraz, hoberena litzateke eskola publikoak hezkuntza alternatiboaren alderdiak hartzea.

13-Zure iritziz, **nola zabaldu** liteke hezkuntza alternatiboa **sistema publikora**, soilik eskola edo proiektu pribatu gutxi batzuetan egindako berrikuntza bezala geratu ez dadin?

Zu bezalako jendearekin zabaldu daiteke. Azkenean eraldaketa hori aurrera eramango dute eraman nahi dutenek. Publikoa dena gutxinaka aldatzen joango da, eta planteamentu mota horietan (zelan egituratzen den hezkuntza...) irabazten joango den guztia ona izango da. Irakasle inplikatuak behar dira, baina baita ere Berritzegunean... Gutxinaka, halako alternatibak ezagutzen dituzten profesionalen bidez. Baina bebai izan behar dugu *la sangre fria de saber donde estamos*. Horregatik esaten dugu homeschoolling-a legalizatzearen kasuan kontuz ibili behar garela, eta jakin behar dela zeintzuk diren zure gaitasunak eta zein den errealitatea. Eta hori kontuan izanda jakingo dugu zein bidetik joan. Ezin izango duzu iraultzarik egin edo instituzioei aurre egin, ez baduzu hori kontuan izaten. Baina instituzioa edo hezkuntza publikoa ez da mugitzen ez den mounstro bat; pertsonak osatzen dute, eta asko aldatzeko, ikasteko eta gauza berriak egiteko prest daude. Eta gauza berriak egiten ari dira eta hezitzeko era hauek aplikatzen ari dira; batez ere eskola txikien kasuan. Eraldaketa hortik etorriko da.

Gainera, Lehen Hezkuntzararte omologatuta dauden (haiek nahi izan dutelako) eskola libre asko daude; eta baita Montessori, Waldorf eta anztekoak. Hor aukera asko daude (ez ordea Bigarren Hezkuntzan, non instituzioak apur bat urduriago jartzen diren). *Tu pagas y vas a la escuela que quieres*, eta instituzioek onartzen dute.

14-Lehenago azaldu duzu zergatik erabaki zenuen zure seme/alaba proiektu honetan sartzea eta ikusten dituzun onurak. Uste duzu **alderdi horiek** hezkuntza **publiko**-konbentzionalean ematea **ezinezkoa** dela? Zein **muga edo oztopo** ikusten dituzu pedagogia alternatiboak eskola publikoetan aplikatzeko? **Zein neurritan txertatu ahalko** lirateke gaur egun? **Zein** uste duzu dela hezkuntza alternatiboa guztiontzat eskuragarria izaten **hasteko bidea?**

Uste dut jada egiten ari diren gauzak daudela (pedagogia alternatiboak eskola publikoetan txertatzen). Baina oztopo nagusia beti norbait (kanpoko norbait, eta ez zu) zure lana eta ezagutza baloratzen ari dela

da, eta ondo eta gaizki egiten duzuna esaten. Hori kendu beharko litzateke, baina ez dakit oso ondo nola. Oraindik ez da asmatu era masiboan ebaluatzeko modu bat. Azterketak daude (HH eta LHko eskola batzuek kendu dituzten arren), eta horrek ez du ezagutza bermatzen. Egiten duzuna (eta ia ia nor zaren) epaitzen ari badira etengabe, zaila ikusten dut eraldaketa edo aplikazioren bat.

Zaila ikusten dugu pedagogia alternatiboak neurriren batean eskola publikoetan gaur egun txertatzea. Ez dugu adibiderik ezagutzen LHn. HHn, ordea, espazioak eta abar aldatzen ari dira pedagogia askeak jarraituz. FP-ren batean ere horma guztiak bota zituzten -kristalezkoak jarritz-, eta proiektuka funtzionatzen dute. Baina gutxinaka badoaz konturatzen ikasteko modu ezberdin bat dela egokiena: zuk ikastea, eta ez norbaitek irakastea.

Eskola konbentzionaletan badirudi gure hezkuntza-etapa edo urteak uharte antzeko bat direla eta gero bazoazela bizitza errealean. Baina gure alabak hasieratik egon dira bizitza errealean (taldean lan egiten ikasten, errespetatzen, interesatzen zaiena ikasten gero aplikatzeko...). Eskola konbentzionaletan ikasleak azterketekin eta ordutegiarekin agobiatuta daude, nekatuta, eta interes gabe. Irakurtzeko eta ikasteko gogoak galtzen dira. Nik nire alabengan ez dut inoiz ikusi bizitzarekiko (politikarekiko, beste toki batzuetan zelan bizi diren jakitearekiko...) interesa galdu denik. Araututako hezkuntzan behartuta daude interes horiek izatera, eta eskola ez dago egunerokotasunarekin lotuta. Oraindik ez du pauso hori eman. Oraindik pertsona produktibo bat izaten irakasten dizutela dirudi (XIX.mendean bezala); eta ez pertsona zorientsu, integratu eta ekintzaile bat izaten.

Lehen pausoa proiektu hau bezalako eskolek dituzten ezaugarriak izango dituen hezkuntza publiko bateranzko bidean: Politikoki, kulturalki... dena elkarrekin doa. Gizarteak eskatzen duen zerbait izan behar da. Gutxinaka hazten joango da. Benetan errespetatzen baduzu gizakia (txikia zein nerabea izanda), bakarrik ateratzen den gauza bat da. Nik ez dut beste modu batean konzibitzen hezkuntza orain. Aldatzen ari diren gauzak daude: Adibidez, gizarte nahiko eraldatu da haurrak jotzea onargarria ez dela (ilegala baizik) ulertzeko. Gakoa zera da: haurrak pertsona oso edo integral bezala errespetatzen ikasten badugu, benetan zer behar duten ikusi ahalko duzu .

Lehen informazioa irakasleek edo kurek zuten, eta informazio hori lortzeko haiengana jo behar zenuen zerbait iaksteko. Baina orain dena dugu eskura; beraz, zer erakutsiko dit irakasle batek? Ba, bizi-esperientziak, soilik urte gehiago bizi izan direlako,. Ez da “yo se y tu no sabes”; baizik eta biok ikas dezakegu elkarrengandik. Egia esan bizitza errazagoa da horrela; arazo asko ez zaizkizulako heltzen. Gu hori bizitzen ari gara nerabezaroarekin, ez baikara espero “apurketa” hori bizitzen ari. Guk elkar ulertzen dugu, erlazio erraza da.

Etorkizuna publikoa da. Proiektu hau egon ez balitz publikora jo izan genukeen. Hezkuntza zerbitzu publiko bat izan behar da, ondo zainduak duaden profesionalarekin (gero ondo zaindu ahal izateko haurrak). Niretzat hori oinarritzakoa da. Pausoz-pauso goaz, beti nahiko genukeena baino motelago.

8. ERANSKINA: Elkarrizketa: 3. Familia.

ELKARRIZKETA

3. FAMILIA

1-**Noiztik** dago zure alaba/semea eskola honetan?

Gure alaba 4 urtetik 8 urte zituenerarte egon zen proiektu honetan. Iaz (2021) izan zen bere azken urtea, guk hala erabaki genuelako. Beraz, bost ikasturtez egon da eskola honetan. 4 urterekin hasi zen orduan hasi zelako eskola bera.

2-**Nola** izan zenuen eskola **honen berri**?

Ba pixka bat txiripaz enteratu ginen; ezagun batzuek esanda ari zirela eskola hau martxan jartzen. Gu berez lehenagotik horrelako proiektuekin oso interesatuta geunden, baina hiritik urrun egonda -eta gu hirian bizita- edota ekonomikoki ezin geniolako horri aurre egin, ez genuen halako proiektu batera eramane alaba; eta bi urterekin eskola publikoan hasi zen. Baina, bi urte beranduago proiektu hau martxan jartzeaz zegoela entzun genuen, nik beste lan bat lortu nuen eta ekonomikoki pixkatxo bat posibleagoa zenez, hurbildu ginen. Eta lehenengo bileretan, eskola ikusi eta haiek ezagutu ondoren, animatu ginen.

3- Zein zen zure **aurreiritzia** eskola/proiektu alternatiboen inguruan?

Nire aurreiritzia, baino, nire esperientzia eskola publikoan izan zen erabakigarria. Hau da, kalifikazioaren oso menpe zegoela, erratio oso handiekin, eta batez ere ez zitzaiola denbora ematen harreman osasuntsuak eraikitzeari eta pertsonak hezteari -baizik eta edukiei-. Eta hori alaba bi eta hiru urteko gelan zegoelarik!. Jada ikusten hasi nintzen hori zela zetorrena. Proiektu honetan esperientzia erradikalki ezberdina izango zela susmatu nuen lehenengo bileratik. Zein esparru fisiko, zein erratio, haurrari eskeintzen zitzaion harreta mota... horrek guztiak harrapatu ninduen.

4-**Zergatik erabaki** zenuen eskola/proiektu honetara eramatea zure alaba/semea?

Pertsonalki, nire eskola garaiko oroitzapenak orokorrean nahiko tristeak eta nahiko eskasak izan ziren. Oso gaizki pasatu nuen jesarrita egon behar izanda hainbeste ordu; fisikoki mugitzeko beharra nuen, eta ez nuen batere ondo eramane hori. Nahiz eta ez nituen nota txarrak ateratzen, oroitzapen eskasa nuen. Eta amesten nuen alabari beste zerbait eskeini ahal izatearekin. Baita ere, egia da gaur egun -nire garaiarekin alderatuz- aldaketak egon direla. Baina iruditzen zait oso oso oso poliki aldatzen ari dela, eta iraultza bat behar dela. Aldaketa erradikal bat; erabatekoa, alderdi guztiak zalantzan jartzeko beldurrik gabe: harremanak, sariak, zigorrak, ebaluaketak... Guzti horrek, nire ustez, ez dio erantzuten gaur egun sortu

eta hezi behar dugun gizarte bati eman beharreko hezkuntzari. Konpetizioa, zigorra...Niretzat hori ia ia frankismoarekin eta industrializazioarekin lotzen dudan zerbait da.

5-Zein da zure **ikasketa-maila** eta **lan-alorra**?

Goi-mailako gradu ikasketak ditut Arte-Dramatikoan. Eta Arte Ederretako masterra daukat. Egun, goi-mailako antzerki eta dantza eskolan irakaslea naiz. Eta baita ere kolektibo eszeniko bat daukat; eta antzerkigile, aktore eta sortzailea ere banaiz.

6-Esango zenuke **edozein familiak** duela **aukera** proiektu alternatiboetan sartzeko haien seme-alabak?

Zoritzarrez, esan beharra daukat edozein familiak ez daukala aukera proiektu alternatibo guztietan sartzeko. Hau da, guztietan ez dute aukera; baina baten-batean seguraskibai (ez ditut danak ezagutzen). Baina gaur egun proiektu alternatiboen gehiengoa (gutxienez Euskal Herrian) pribatuak dira. Eta kostu ekonomikoaz gain (gure familian, adibidez, ahalegin handia suposatzen duela), beste ahalegin mota batzuk ere badakartza: normalean eskola alternatiboetan kontutan izaten da umearentzat onenea dela gizartean eta familian integratuta egotea denbora parte handiengan. Hots, eskolak ez duela zertan izan haurtzaindegi bat; baizik eta ordu batzuek zerbait ikastera edo esperientziatzera joateko denbora esparru bat. Eta denbora horiek eskola publiko eta kontzertatu gehienetakoak baino askoz ere murriztuagoak dira hemen. Orduan, eskerpen ekonomikoaz gain, umeak ordu gutxiago egoten dira eskolan. Horrek esan nahi du familiako kideren batek umearen zaintza ordu gehiago dauzkala. Niretzat filosofia hori oso ondo dago, baina gero errealitatea (gaur egungo sistema sozio-ekonomikoa) ez dago horrela antolatuta; eta zailtasunak dakartza kontzertatutakoak.

7-Zure seme-alaba eskola honetara ekartzeko **ahalegin-ekonomiko** handia suposatzen du, publikoa ez den heinean?

Gure kasuan ahalegin handia izan zen, oso gustura egindako ahalegina (oso pozik egon ginen urte guzti horietan) eta merezi izan du. Gure alaba gaur egun den pertsona da eman diogun aukera horri esker, eta gara bat ere damutzen. Baina egia da, azken urtean, duela bi urte etxea erosi ostean iaz komunitatean igogailua egitea erabakitzeak ekarri zuen bat-bateko familia-gastuak estutasun handian jarri gintuela. Guk gure alaba proiektu honetara eramateko egindako ahalegin ekonomikoak oso bizitza “justua” eramatera behartzen gintuen; orduan bat-bateko gastu handi horrek erabakia birplanteatzea eragin zigun: “ezin gara hain justu bizi; ezin diogu aurre egin orain denari ekonomikoki...”. Estutasun horretan erabaki genuen (horregatik, eta baita ere hirian bizi ziren gure alabaren eskola honetako lagun asko eskola ingurura etxealdatzen ari zirelako) hiriko eskola batera aldatzea, urte hauetan autonomia irabazten doala, auzoan -edo, gutxienez, gertu- lagunak izateko. Eta hori izan zen erabakia: ekonomikoa, alde batetik, eta baita ere garai aproposa izan zitekeela ikusi genuela.

8-Hezkuntzaren **zein alderdiri** ematen zaio **garrantzi handiena** eskola honetan? (Esate baterako; mugimendu librea, erritmo naturalak errespetatzea, naturarekiko erlazioa, ingurugiro eta material prestatuak edo ez-prestatuak, autonomia...)

Proiektu honetan gauza askori ematen zaio arreta; gauza asko zaintzen dira. Uste dut ezin dudala bat nabarmendu. Egia da pertsonalki gehien baloratu dudanetariko bat harreman pertsonalak lantzeko eman zaien hezkuntza izan dela; bereziki gatazkak modu demokratikoan konpontzeko hezkuntza. Niretzat hori urrea izan da alabarentzat, eta geuretzat baita ere: ni guraso bezala sentitu naiz nire burua berriro hezten eta asko ikasten; asko garatu gara helduok ere.

Bestalde...Egia da eskolan hainbat jarduera edo tailer daudela, baina saiatzen dira umeak haien borondatez izena ematen. Behin izena emanda konpromesu bat izan behar dute: hiru bider baino gehiago ezin dira faltatu klasera (bestela tailer hori utzi egion behar dute, ezin dira bueltatu. Egia esan, eskola honetan txikitatik hasitako ume gehienek ia jarduera guztietan parte-hartu nahi dute. Oso positiboa da umeek sentitzea desio propio batetik doazetala gauzetara eta ikasten dutela; nahi dutela bertan egon, proiektuak garatu, eta abar.

Beraz, uste dut dut bi alor horiek nabarmenduko nituzkeela: Alde batetik, umearen interesa, desioa eta barrutik kanporako ikasketa prozesua (eta ez kanpotik agindutako zerbaiten inguruan ikastea). Eta, bestetik, gatazken konponbide demokratikoa eta autonomia (jardueretan bakarrik egotea, lagunak joan nahi joan ez).

Eta azpimarratuko nukeen beste gauza garrantzitsu bat adin ezberdinak nahastuta egotea da. Tontakeria bat bezala ikus daiteke, baina esperientzia hori izan eta gero oso bortitza egiten zait adin berdina duten haurrak egotea gela berean. Izan ere, oso positiboa da afinidade, sensibildade, edo garapen erritmo bera ez daukan jendea egotea talde horretan. Eta nik ikusi nuen nire alaba joko edo jarduera batzuetarako bi edo hiru urte txikiagoak zirenekin batzen zela, beste batzuetarako bere adinekoekin, eta beste batzuetarako nagusiagoekin. Desio edo interesa duten alor batzuk garatzeko aukera agian beste adin batzuetako pertsonekin egoteak emango die. Eta, zentzu horren, use dut gatazka pila bat murrizten dela: batez ere txikien artean garatuago dagoen bat badago eta bera baino askoz umeagoak direnekin egotera behartuta badago, ume hori hasiko da besteak manipulatzeko, besteak morroi gisa erabiltzen... Eta ume horri aukera emango baliokete modu libre batean bere heldutasun maila daukaten umeekin jolasteko, jadanik seguraski gatazka mota horiek ez lirateke gertatuko edo askoz gutxiago gertatuko lirateke.

9-Zein **onura** ikusten dituzu eskola honetan, eta orokorrean hezkuntza alternatiboan? (Aderdi positiboak zure seme/alabarengan eta gizartearengan...) Zer da zuk **gehien baloratzen** duzuna?

Jada esandakoari gauza bakarra gehituko diot: Proiektu honek (baina uste dut hezkuntza-proiektu alternatibo askok hori ahalbidetzen dutela) naturarekin duen kontaktua. hainbesteko urbanizazioa ez dagoen inguru batean dago, ez dago zementuzko jolas-leku bat; landa bat dago, erreka bat, baratze bat, zuhaitzak, enborrak... Jolas-lekua da haiek manipulatu, mugitu, eraiki eta deseraiki ditzaketen materialak: gurpilak, enbor puxkak, makilak... Euri asko egiten du hemen, baina txubaskero, euritarako praka eta katiuska batzuekin umeak ordutan egon daitezke kanpoan euritan arazorik gabe. Eta niretzat hori da alternatiboa ez den eskola gehientan asko falta dena; eta orokorrean herri eta hiri gehienetako jolasleku eta parkeetan.

10-Zein **muga** edo **zailtasun** ikusten dituzu eskola honetan, edo orokorrean hezkuntza alternatiboan? (Alderdi negatiboak, zure kezka, edo oraindik jorratu ez diren arloak; adibidez: oztopo legalak, proiektuaren ez-egonkortasun ekonomikoa, familien perfil-aniztasun falta, haurrak hurrengo hezkuntza-etapetara moldatzeko zailtasun akademikoak...)

Nik ikusten ditudan oztopo nagusiak ekonomikoa eta akademikoa lirateke. Hau da, 12 urtetik gorako haurrei dagokienean (LH bukatutakoak), ez baldin badago Bigarren Hezkuntzarako analogoa den zentro edo proiektu alternatibo bat, aldaketa horrek jende askorengan beldur asko sortzen du (guk beldur hori ez genuen arren). Beste zailtasun bat proiektuaren ez-egonkortasuna litzateke; jendea mugitzen delako (herriz edo hiriz aldatu), besteak beste. Proiektu honetan ez-egonkortasuna egon da, bai. Beste kontu bat da niretzat hain baliotsua den espazio natural horiek eskaintzeko proiektu bat izanik, hirietatik hurbil jartzea ez da erreza; eta, aldi berean, masa kritikoa hirietan dago. Hots, nire ustez, horrelako proiektu batera umeak eramateko desioa eta espíritu kritikoa hori gehienbat hirietan dago. Proiektu hau nire iritziz pixka bat urrun geratzen da hiri batetik; eta horrek (bidaiaren kontuak) jende askori atzera eragiten dio. Eta hori gaur egun ez dela gu hasi ginenean bezala, familiek antolatutako tren bidaiak egiten genituela; gaur egun minibus bat dago. Diruaz gain, minibusetako bidelagunak gurasoak berak dira, eta zure denbora inbertitu behar duzu minibus horretan txandak egiten. Beraz, ahalegin handia da, eta horrek jende asko atzera botatzen du.

11-Nola hobetuko zenuke hori?

Nire ustez, idealki, ez baita bat ere erreza (eskola erabilerarako kalifikatutako lur-eremu batean egon behar delako eskola omologatua egoteko), baina hirigune edo masa kritikoa dagoen guneeetatik gertuago egotea eskola niretzat ezinbestekoa litzateke holako proiektuen ibilbidea sendotu edo bermatzeko. Baina, aldi berean, natura esparru pixkat basati bat galdu gabe. Hori hobetzeko bideetako bat. Beste bat: Bigarren Hezkuntzan jarraikortasun bat izatea. Baina uste dut denborak ere erakutsiko digula zein onura dituzten horrelako proiektuek; eta espero dut gutxinaka hezkuntza-sailak ere onura hauek kontutan izatea eraldaketak sortzeko eskola publikoan ere.

12-Zein uste duzu izango dela **hezkuntza alternatiboaren bidea** datozen urteetan? Etorkizun oparoa duela uste duzu? **Sistematik at, edo sistemaren barruan?**

Sentitzen dut, baina ez daukat idearik ere ez. Nik bihotzez espero dut eredu izatea eraldaketa sakon bat eragiteko hezkuntza orokorrean edo publikoan. Ni, pertsonalki, ez naiz kontzertatuen aldekoa; uste dut eskola sistema osoak publikoak izan beharko lukeela, edo ez ematea diru publikorik eskola pribatuei. Baina, aldi berean, eskola publikoaren gehiengoak gaur egun ez dauka -nire ikuspuntutik- kalitate nahikorik. Nik ez nuke nire alaba berriro sartuko eskola publiko batean ikusita nola dagoen sistema.

13-Zure iritziz, **nola zabaldu** liteke hezkuntza alternatiboa **sistema publikora**, soilik eskola edo proiektu pribatu gutxi batzuetan egindako berrikuntza bezala geratu ez dadin?

Nik uste dut ikusgarritasuna emanaz zabaldu daitekeela. Hau bezalako ikerketak, elkarrizketak, programak (Ur Handitan-ek egin zien txoko bat hezkuntza alternatiboan dabilzan eskolei)... Hori da bidea: ikusgarritasuna.

14-Lehenago azaldu duzu zergatik erabaki zenuen zure seme/alaba proiektu honetan sartzea eta ikusten dituzun onurak. Uste duzu **alderdi horiek** hezkuntza **publiko**-konbentzionalean ematea **ezinezkoa** dela? Zein **muga edo oztopo** ikusten dituzu pedagogia alternatiboak eskola publikoetan aplikatzeko? **Zein neurritan txertatu ahalko** lirarteke gaur egun? **Zein** uste duzu dela hezkuntza alternatiboa guztiontzat eskuragarria izaten **hasteko bidea**?

Oztopo asko ikusten ditut. Oztopo batzuk arkitektonikoak dira, beste batzuk urbanistikoak: Ezinbestekoa da umeak naturarekin kontaktuan egotea; garatzeko eta ikasteko zikindu eta busti behar direlako. Zementoa da eskoletan daukagun okerrena. Beste alde batetik, erratioak, eta funtzionamendua: ezinezkoa da 25 ume gela batean egotea eserita klase magistral bat entzuten hain adin txikiekin. "Irakasle gizajoak" pentsatzen dut nik. Ezinezkoa den ataza bat eman diete. Bestalde, lanketa pertsonal bat egin behar da: niretzat oso injenuoa da pentsatzea karrerako edukiak dakizkidalako edo pedagogiaren inguruan ikasi dudalako (eta, are gehiago, praktikatu ditudalako), irakasteko eta umei arreta emateko gai naizela. Uste dut lanketa pertsonal sakon bat egin behar dela jakiteko zuk zeuk gatazkak demokratikoki konpontzen hurkoa errespetatzen, umearen pataletak jasan, ulertu, itxaroten. Pazientzia lan handia ikusi dut nik proiektu honetan; ikaragarritzko ulermena, errespetua eta estrategia oso inteligenteak umei entzuna eta ulertua dela jakinarazi eta hala ere mugak zeintzuk diren jakin eta errespetatzeko (egunean zehar egin behar dituen atazetara bideratzeko...). Eta baita ere malgutasuna izatea: oso ondo geratzen da paperean esatea ume bakoitzak erritmo bat daukala eta abar; baina hori gero irakasle batek ikusi, ulertu, errespetatu, eta bidean lagundu egin behar du. Eta hori ez da bat ere erreza. Gertutik ikusi dudanean proiektu honetan zer den bidelagun on bat konturatu naiz zein zaila den. Oso oso zaila da. Askoz zailagoa da norberaren baitan egin behar den lanagatik, gero umearen baitan egin behar den lanagatik baino.

Uste dut umearekin egin behar den lana oso zaila edo ia ezinezkoa dela hezkuntza tradizionalak planteatzen duen modelo autoritario edo klase magistralaren kontu honekin, baina aldi berean ez du inolako lanketa pertsonalik behar: eduki batzuk jakitea da, eta mantentzea umeen arreta. Beste modelo honetan, uste dut askoz ere lanketa pertsonal sakonagoa, pazientzia, ulermena, eta orokorrean sensibilidade bat behar da. Eta sensibilidade horretara iristeko egungo irakaslegoko jende askok lanketa sakon bat egin beharko luke.